



---

# EUSKADIKO 2030eko INGURUMENEN ESPARRU PROGRAMA

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**Argitaraldia:** 2023ko martxo



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritza  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Diseinua:** Roberto Saenz Maguregui

**LG (Lege Gordailua):** BI 358-2023

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)



---

EUSKADIKO  
2030eko  
**INGURUMENEN  
ESPARRU  
PROGRAMA**

---

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



---

## GIZARTEA JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGITIK ERALDATZEN

---

50 urte bete dira ekainaren 5a Ingurumenaren Munduko Eguna izendatu zenetik Stockholmen egin zen Giza Inguruneari buruzko Nazio Batuen Biltzarrean. Duela mende-erdi, 1972ko biltzar hartan, goiburua “Lur bakarra” izan zen. Gaur egun, 50 urte geroago, goiburu horrek indarrean jarraitzen du: gure planeta gure etxe bakarra da, eta gure ardura da hura defendatzea, bertako baliabideak mugatuak direla jakinda.

2030a oso garrantzitsua da beste eredu bateranzko ezinbesteko trantsizio horretan; paradigma berri horri esker, Euskadik neutraltasun klimatikoa lortu behar du, eta lurralde erresiliente bihurtu behar da 2050erako. Ordurako, aurrerapen esanguratsuak egon beharko lirateke.

Helburu horrekin, eta Euskadiko Itun Berdea ardatz gisa hartuta, 2022ko apirilean, Euskadiren 2030era bitarteko jasangarritasun-politikak finkatuko dituen programa diseinatzen hasi ginen: Euskadiko 2030eko

Ingurumeneko **V. Esparru Programa**, gure iparrratza. Lan-prozesu parte-hartzaile baten bidez egin genuen lan hori. Prozesu horretan, euskal gizarteko esparru guztietako eragile eta adituek sinergiak sortu dituzte, ideiak eta ezagutzak partekatu dituzte, eta zenbait proiektu eraldatzaile proposatu dituzte, hamarkadaren amaierarako lurraldea jasangarriagoa izan dadin. Ibilbide-orri estrategikoa da 2020-2024rako Gobernu Programan berariaz geure gain hartu genuen konpromisoa betetzeko.

Euskal ingurumen-politika fruituak ematen ari da. Hala ere, erronka berriak geratzen dira, eta etorriko direnak, eta haiei aurre egiten jarraitu behar dugu, Eusko Jaur-laritzak Euskadiko Itun Berdearen bidez sustatutako garapen-eredu bidezko eta jasangarri baten bidez. Haren bidez, alderdi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa orekatu nahi dira, industria eta teknologia palanka nagusi gisa hartuta.



### **Arantxa Tapia**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua  
Eusko Jaurlaritza

---

**Euskal ingurumen-politika fruituak ematen ari da. Hala ere, erronka berriak geratzen dira, eta etorriko direnak, eta haiei aurre egiten jarraitu behar dugu, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Itun Berdearen bidez sustatutako garapen-eredu bidezko eta jasangarri baten bidez. Haren bidez, alderdi ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa orekatu nahi dira, industria eta teknologia.**

---

Erronka horiei erantzuteko Programa berri honekin zehaztu ditugun proiektu eraldatzaileak asmo handikoak dira, eta, askotan, aitzindariak, bai Estatuan,

bai Europan. Proiektu horiek errealitate bihur daitezten eta beste jasangarritasun-egoera batera hurbil gaitzaten, ezinbestekoa da arlo publikoa eta pribatua elkarlanean aritzea; horrela, lidergoa partekatuko dute, gaitasunak batu, konfiantza-esparruak sortu, eta baliabide teknikoak eta giza baliabideak errazago trukatu. Eta, bereziki, euskal herritar guztiak parte hartzea, haiek izan behar baitute gizarte-eredu jasangarriago bateranzko trantsizioaren funtsezko protagonista.

Orain, ekintzara pasatu behar dugu, eta haiek abian jarri. Horretarako, gizarte gisa dauzkagun eta oparotasuneko eta gizarte-kohesioko gaur egungo mailara iristea ahalbidetu diguten balioetako batzuk indartu behar ditugu. Hain zuzen ere, ahalegina, ausardia, berrikuntza, gardentasuna, lankidetzeta, eskuzabaltasuna eta antzeko beste balio batzuk. Zalantzarik gabe, balio horiei esker, 2030ean Euskadi jasangarriagoa izango da, baita lidergoaren erreferentzia ere Europan, gure planetaren etorkizunarekiko konpromisoan.

*“Gure historiako une tragikoenek ere gure iraganaren eta etorkizunaren gaineko kontrola galtzearen arriskuak ekarri dizkigute gogora. Okerra da biziarteko espetxe batean bizirautea gauzak aldatu ezin direla pentsatuz, jokatzeko modu hobetik egon ezin dela eta, are okerrago, guztiak beti berdin jarraituko duela. Geldirik egotea atzera egitea da”*

**Ursula von der Leyen, Europar Batasuneko presidentea.**

Europaren etorkizunari buruzko hitzaldiaren amaiera (2022ko maiatzaren 9a).

*“Datozen belaunaldientzako aurrerabidea eta oparotasuna bermatzeko unea da. Une honetan, erakundeen elkarlana, lankidetzeta eta, batez ere, ekintza behar dira. Une honetan, sinergia behar da Administrazioaren eta gizartearen artean”*

**Iñigo Urkullu lehendakaria.**

“Next Generation Euskadi” jardunaldia  
(2022ko maiatzaren 25a).

# AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA. EUSKADIKO 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMAREN HELBURUA, IRISMENA ETA EGITURA. ....</b>	<b>8</b>
<b>2</b>	<b>EUSKADIKO 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMA PRESTATZEKO PROZESUA .....</b>	<b>10</b>
<b>3</b>	<b>TESTUINGURUA: JASANGARRITASUNA NAZIOARTEKO, EUROPAKO ETA EAEko POLITIKEN ERDIGUNEAN. ....</b>	<b>12</b>
<b>4</b>	<b>EUSKADIREN KONPROMISOA 2030erako: IKUSPEGIA, LEHENTASUNEZKO ERRONKAK ETA PROIEKTU ERALDATZAILEAK<sup>14</sup></b>	
<b>5</b>	<b>EUSKADIKO 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMAREN GOBERNANTZA-EREDUA .....</b>	<b>39</b>
<b>6</b>	<b>2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK .....</b>	<b>40</b>
<b>7</b>	<b>EUSKADIKO 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA .....</b>	<b>42</b>
	<b>ANEXOS .....</b>	<b>44</b>

## **1. ERANSKINA** .....

Euskadiko 2020ko Ingurumenaren Egoera eta Aurreikuspenak.  
Estekaren bidez eskuragarri

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadiko020ko-ingurumenaren-egoera-eta-aurreikuspenak-3>

## **2. ERANSKINA** .....

Testuingurua: jasangarritasuna nazioarteko, Europako eta EAEko politiken erdigunean

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

## **3. ERANSKINA** .....

2020ko Ingurumeneko IV. Esparru Programaren amaierako ebaluazioaren txostena

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

## **4. ERANSKINA** .....

2030eko IEP prestatzeko partaidetza-prozesuaren txostena

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

# 1

## SARRERA. EUSKADIKO 2030eko INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMAREN HELBURUA, IRISMENA ETA EGITURA

Nahiz eta azken urteetan aurrerapen handiak izan diren Euskadiko ingurumen-adierazleetan, ingurumenaren ikuspegitik Euskadi ingurune globalean murgilduta egotearen errealitateak ingurumen-larrialdiko egoeran kokatzen gaitu. Hala esan dute bai Eusko Jaurlaritzak (2019ko uztailaren 30ean), bai Eusko Legebiltzarrak (2019ko irailaren 26an) Klima Larrialdietako Adierazpenetan, jasangarritasunaren gaia herrialdearen helburu nagusi gisa kokatzen baitute.

Hori dela eta, Euskadiko 2030eko Ingurumeneko V. Esparru Programak (aurrerantzean, 2030eko IEP) are garrantzi handiagoa hartzen du ingurumeneko aurreko plangintzekin alderatuta. Amaitu da hotsandiko adierazpenak egiteko garaia, eta, orain, ekintzara pasatu behar dugu. **Bai herrialde gisa, bai banako gisa hartutako konpromiso batean oinarrituta erabakitako ekintzara.**

Horretan guztian, ordea, kontuan hartu behar da, ondoz ondoko krisietatik ateratzeko (osasun-krisia, krisi geopolitikoa eta krisi ekonomiko eta finantzarioa), **digitalizazioaren, deskarbonizazioaren eta desmaterializazioaren aldeko apustu sendoa** egin behar dela, ezinbestekoak baitira garapen jasangarriko eredu berri bat erdiesteko.

Horren harira, eraikuntza partekatuko prozesu baten barruan gauzatu da. Prozesu horretan, erakundeek, inoiz baino gehiago, elkarrekin lan egin behar dute, eta gizarte osoaren parte-hartzea eta lankidetzara sustatu behar dituzte, enpresa, gizarte eta eragile zientifiko-teknologikoei dagokienez. Europar Batasunaren ingurumenaren arloko 2030eko VIII. Ekintza Programa Orokorrak dioen bezala, ongizatearen ekonomiaren testuinguruan gertatu behar da trantsizio ekologikoa; ekonomia horretan, hazkundeak birsortzailea izan behar du, eta aldaketa sistematikoa eragin, gure gizartee-tako ongizatea eta oparotasuna klima egonkorraren, ingurumen osasungarriaren eta ekosistema jorien

menpe daudela aitortu, eta planetaren mugean barruan jardun-esparru seguru bat eman.

2030eko IEPk aurrekoekiko duen berritasun nagusia ikusmoldean datza. Oraingo honetan, IEP ez da ingurumen-helburuen multzo baten definizioan oinarritzen; izan ere, helburu horiek erabat definituta daude, eta ibilbide-orri zehatzetan zabaltzen dira, Euskadiko Itun Berdearen eta indarrean dauden ingurumen-plangintza sektorialen bidez.

Ez du zentzurik, beraz, 2030eko IEP planak biltzeko beste plan edo estrategia bat izateak. Aitzitik, haren balio nagusia hausnarketa eta definizio estrategikoko ariketa handia izatea da, (1) plangintza sektorialak elikatu behar dituzten orientazio nagusiak ezartzen dituen, eta (2) plangintza horiek eraginkortasunez ezartzen laguntzen duena, sustapen-palanka batzuen bidez. Hausnarketako ariketa horrek kontuan hartzen ditu aurreko IEPetan ikasitakoa, Europako plangintza estrategikoa eta jasangarritasunarekin lotutako egungo egoeraren eta joeren elementu nagusiak.

### 2030eko IEP Euskadiko trantsizio ekologikorako katalizatzaile estrategikoa da.

2030eko IEPko orientazio estrategikoak euskal ingurumen-politikari eta 2030erako zehazten diren ikuspegiari aplikatzen zaizkion lehentasunezko 6 erronka nagusitan multzokatzen dira. Erronka horiek ezin hobeki integrituta daude bai inspirazio-iturri duten Europako VIII. Programan, bai elikatzen dituzten euskal plangintza eta araudi sektorialean ere.

Bestalde, 2030eko IEP horren ezaugarriak sustatzeko palankak proiektu eraldatzaile batzuetan gauzatzen dira. Proiektu horiek, 2030eko IEP osoaz gain, partai-



detza-laneko prozesu luze baten emaitza dira. Gainera, proiektu horiek funtsezko elementu batzuk dakartzate beren DNAn; besteak beste, asmo handia, berrikuntza eta elkarlana. Proiektu bizi gisa ikusten dira, bai edukiari, bai garapenari dagokienez.

Eragileen partaidetza eta elkarlana zehaztutako proiektuak eurak bezain garrantzitsuak dira ia. Batez ere azkenaldian ikasi dugun gauzarik aipagarriena egoera estrukturalekin (esaterako, ingurumen-larrialdia) eta egoera koiunturalekin (esaterako, COVID-19aren pandemia) bizitzea eta bi errealitate-motei batera eta modu koordinatuan erantzutea izan delako behar-bada.

Alderdi horiek guztiak kontuan izanda, Euskadiko 2030eko Ingurumeneko Esparru Programak eduki hauek garatzen ditu:

- 2030eko IEP prestatzeko egindako lan-prozesuaren sintesia.
- Nazioarteko testuingurua aztertzen da: jasangarritasunaren gakoak identifikatzen dira, mundu-mailako erronka handi gisa, baita Europaren lidergoaren ere, erronka handi horri

mundu-mailan erantzuteko, eta testuinguru hori euskal errealitateari aplikatzen zaio; horrez gain, ingurumenak Euskadin izan duen bilakaera eta egun duen egoera aztertzen da, eta aurreko IEP ebaluatzearen emaitzak laburbiltzen.

- Euskadik 2030ean jasangarritasuna lortzearen alde hartutako konpromisoa zehazten da, Euskadiko 2030ean identifikatutako lehenetsuneko erronkei erantzuteko.
- Euskadik erronka horiei erantzuteko moduaren zehazpena, proiektu eraldatzaileen bidez.
- IEP berriaren gobernantza-ereduaren eta segimenduaren definizioa. Zehaztutako estrategia ekintza eraldatzaile bihurtzen dela ziurtatzen lagundu behar digu eredu horrek.

2030eko IEPko edukiak eranskin gisa osatzen dira, dokumentu hauetarako estekak jarrita: Euskadiko 2020ko Ingurumenaren Egoera eta Aurreikuspenak (aurretik ere argitaratua), 2020ko Ingurumenaren IV. Esparru Programaren amaierako ebaluazioko txostena eta gaur egungo testuinguruaren analisisa, eta 2030eko IEP prestatzeko egindako partaidetza-prozesuaren deskribapena.

# 2

## EUSKADIKO 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMA PRESTATZEKO PROZESUA

2030eko IEP prestatzeko zehaztu eta ezarri den lan-prozesua behar bezala ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan izatea **10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak**, hau dio 10. artikuluan: “Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika Ingurumeneko Esparru Programa batean zehaztuko da. Programa horretan ingurumenaren egoerari buruzko diagnostiko bat, ildo estrategikoak eta kalitatea hobetzeko bere indarraldian gauzatu beharreko konpromisoak jasoko dira, baita jarduteko lehentasunak eta iritsi beharreko helburuak ere”.

IEPk zenbait elementu formal errespetatu behar ditu prestatzean eta izapidetzean, baina hori bezain garrantzitsua da partaidetzan oinarrituta eraikitzea, eta eraikuntza irekiko bokazio hori ezarpena ere zabaltzea. Izan ere, politika publiko orotan funtsezkoa da lerrokatzea eta elkarlanean aritzea, baina, jasangarritasunaren politikaren kasuan, zeharkakotasunaren errealitateak berak ezinbesteko bihurtzen du eragile garrantzitsu guztiek aktiboki parte hartzea eta elkarlanean aritzea.

Printzipio hori hasieratik aplikatu da 2030eko IEP egiteko. Prozesu horretan, fase ugari bidez, eragile askok parte hartzen dute (ikus 4. eranskina – 2030eko IEP prestatzeko partaidetza-prozesua). Lehenengo aldiz, eta 2030eko IEP honen izaera berritzailea dela-eta, ingurumenaren arloan ez ezik, 2030eko dokumentu hau ikuspegi integral batetik benetan eraldatzailea izan dadin beharrezkoak diren sektore-esparru guztietan

ere badiharduten eragile publiko eta pribatuek hartu dute parte IEPren sorreran, non jasangarritasuna Euskadira garapen-eredu berri baten erdigunean baitago.

Lehenengo fasearekin hasi da prozesua, eta, fase estrategiko horretan, 2030eko IEP hau zehazteko beharrezkoak diren testuinguru-elementu guztiak aztertu dira: nazioarteko eta Europako testuingurua, Euskadiko Itun Berdea, ingurumen-jasangarritasunarekin lotutako euskal estrategia, plan eta programa sektorialak, 2020ko Euskadiko ingurumen-egoera eta 2020ko IV. IEPren ebaluazioa.

Informazio hori guztia oinarri gisa hartuta, barne-hausnarketa egin du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak, eta, haren emaitza gisa, 2030eko ikuspegia osatzen duten elementuei eta jasangarritasunaren arloko lehentasunezko erronkei buruzko proposamen bat prestatu da. Proposamen hori erabili da euskal gizarteko arlo askotako eragile askorekin batera sortzeko prozesua gauzatzeko; hainbat dinamikaren bidez (besteak beste, taldeko tailerrak eta adituekiko elkarrizketak), 2030eko IEPko proiektu eraldatzaileen proposamen bat eta lehenengo karakterizazioa egin da.

Hurrengo fasean, proiektu eraldatzaileen proposamena osatu eta egiaztatu dute ezarpenen parte hartzen duten eragile adituen ordezkariak, azken konfiguraziorako eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko. Horrela, 2030eko IEP dokumentua formalki onartu da.

## Europar Batasuna-ko ingurumenerako VIII. ekintza plana



### Estrategia Sektorialak

- Trantsizio energetikoa eta klima
- Ekonomia zirkularra eta bioekonomia
- Biodibertsitatea
- Lurzorua
- Zero kutsadura




### Ingurumenaren Egoera Euskadin 2020

- Non gaude ingurumenaren arloan?
- Zein dira etorkizuneko ingurumen-aurreikuspenak?
- Nola jarduten du gure ingurumen-politikak?



### Iv. Ingurumen Esparru Programaren Azken Ebaluazioa

## Euskadiko Ingurumen erronkak 2030erako 6



### Ingurumen Erronken Jarraibide Estrategikoak

Aditu-taldea arlo bakoitzerako



### Proiektu Eraldatzaileak



### Parte hartzeko eta Kontrastatzeko Prozesua

Euskadiko 2030eko Ingurumeneko Esparru Programa prestatzeko prozesua

# 3

## TESTUINGURUA: JASANGARRITASUNA NAZIOARTEKO, EUROPAKO ETA EAEko POLITIKEN ERDIGUNEAN

**Nazio Batuen 2030 Agendak** eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuek ezartzen duten bezala, mende honetako erronka globala da mundu osoan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-alderdiak orekatuko dituen garapena lortzea.

Nazioarteko ingurumen-krisia euskal errealitatean ere islatzen da zuzenean. Klima-aldaketa, kutsadura eta biodibertsitatearen galera gure garapen-ereduan ondorio garrantzitsuak dituzten ingurumen-erronkak dira. Klima-aldaketaren ondorioak erraz ikus daitezke, eta gero eta agerikoagoak dira. Halaber, beste elementu batzuk (esaterako, kutsadura) ez dira hain bistakoak, baina besteak bezain kaltegarriak dira, eta, gainera, biztanleria-sektore ahulenei eragiten diete bereziki. Ingurumen-kalitatea garapen-eredu jasangarri eta integratzaile baten oinarrietako bat da; hortaz, sektore horri lehentasunezko arreta emanaz gero, erronka global handiekiko gure erresilientzia hobetu egingo da.

**Europar**, 40 urte baino gehiago daramatzate erronka horiei nola erantzun lantzen. Europar Batasunaren Ingurumen Ekintzako ondoz ondoko Programek ekarri duten ingurumen- eta klima-politikako testuinguruari esker, arreta ingurumen-helburuetan mantendu da, eta ingurumena Europako politikako beste arlo batzuetan integratu; ondorioz, ingurumen-konpromisoak hartu dira mundu-mailan, helburu estrategiko zehatzak ere erdietsi dira, hala nola CO<sub>2</sub> isuriak murriztekoa.

**Ingurumenaren arloko Europar Batasunaren 2030erako zortzigarren Ekintza Programa Orokorrak** dio beharrezkoa dela trantsizio ekologikoa bizkortzea eta ekonomia berria klimatikoki neutroa, jasangarria eta ez-toxikoa izatea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzea, energia berriztagarrietan oinarrituta egotea, erresilientea, lehiakorra eta zirkularra izatea, bidezko eran, ekitatiboan eta integratzailean, baita beharrezkoa dela ere ingurumenaren egoera babestu, leheneratu eta hobetzea, biodibertsitatearen galeran arreta jarrita eta inbertituta. Horretarako, lehentasunezko 6 helburu tematiko eta helburu horiek erdiesten laguntzen duten 34 baldintzatzaile biltzen ditu, eta segimendu-esparru bat ezartzen du.

Europako VIII. Ingurumen Programaren helburuak lortzeko, **European Green Deal** aplikatu da, 2019ko abenduan aurkeztu zenetik Europar Batasunak mundu-mailan dauzkagun ingurumen- eta klima-erronkei erantzuteko erabiltzen baitu. Europar Batasuneko ekonomia jasangarria izateko ibilbide-orri bat da. Erronkak aukera bihurtzen ditu klimaren eta ingurumenaren arloko jardun-esparru guztietan, eta trantsizioa bidezkoa eta integratzailea egiten Europako biztanle guztientzat. Askotariko ekintzak proposatzen ditu baliabideak eraginkortasunez erabiltzea sustatzeko (ekonomia garbi eta zirkularra igarotzeko), klima-aldaketa geldiarazteko, biodibertsitatearen galera leheneratzeko eta kutsadura murrizteko. Ekonomiako sektore guztiak barne hartzen ditu, bereziki garraioa, energia, nekazaritza, industria eta eraikuntza.

Europako politikaren bilakaerarekin bat etorritz, **Euskadik** ere ibilbide luzea eta garrantzitsua du mundu-mailako eta tokiko ingurumen-erronkei erantzuten, eta gero eta asmo eta konpromiso handiago erakusten du.

Ibilbide luze horretan, legegintza- eta plangintza-tresnak sortu eta abian jarri dira, zerbitzu eta programak kudeatu dira, eta antolaketarekin erlazioatutako erabakiak hartu dira, tresna horien eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

Ibilbide luze horretan, bi etapa handi bereiz ditzakegu abiapuntuko egoeraren eta erabilitako tresnen tipologiaren arabera. Lehenengo etapa laurogeiko hamarkadan hasi zen, eta haren funtsezko helburua izan zen jasangarritasunaren alderdirik ia ez zuen industria-politika baten ondoriozko ingurumen-arazo handien "suteak itzaltzea". Bigarren etapa nagusiki XXI. mendeko lehenengo bi hamarkadetan garatu da. Etapa horretan, euskal administrazioak gure ingurumena errespetatuko dela ziurtatzeko beharrezko antolamendu-tresnak barneratuz joan dira, eta pizgarriak emanaz, erakunde publikoek eta pribatuek beren estrategietan ingurumenaren alderdia pixkanaka sar zezaten.

Azken urteetan, eta bereziki 2015etik aurrera, jasangarritasunaren kontzeptua sartzearekin batera, nabarmen bizkortu da aurrerapena: kontzeptu hori garatu, eta politika eta tresna sektorialetan txertatu

da, eta Euskadik aktiboki hartu dute parte nazioarteko ekimen eta programetan.

2020an Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia sortzearekin batera, Eusko Jaur-laritzak bere gain hartu zituen Nazio Batuen 2030 Agendako garapen jasangarriko lehentasunak eta helburuak, eta, urtebete geroago, **2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa** garatu zuen, lankidetzakontratu sozialaren kultura sortzen laguntzeko, taldeko kultura. Oinarri etikoko kontratu sozial bat da; askok partekatutako printzipio, balio eta erronken proiektio gisa ulertzen da, eta gizarte kohesionatuagoa eta bidezkoagoa sortuta gaur egungo krisi-egoera gainditzeko helbururako erabilgarria izatea nahi da.

Jasangarritasuna zentzu guztietan lortzeko zeharkako konpromiso estrategiko handi horrekin batera, eta Europar Batasunaren ereduari jarraikiz, 2021ean Eusko Jaur-laritzak ere bere ibilbide-orria proposatu zuen ingurumenaren aldetik jasangarriagoa izango zen etorkizuna lortzeko: **Euskadiko Itun Berdea**. Ibilbide-orri horrek isuriak murrizteko eta energia berriztagarria sortzeko helburuak biltzen ditu, baina ez da arlo horietara mugatzen, industria eta teknologia palanka nagusi dituen eredu ekonomiko berri baten proposamen gisa baitator; hortaz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, trantsizio energetikoa edo elikatze-katea bera helburu berarekin lerrotatzen dira: garapen bidezkoa eta jasangarria.

Euskadiko Itun Berdeak ingurumenaren arloan duen konpromisoa **ingurumen-plangintza sektorialeko** corpus oso osatu batean gauzatzuz joan da orain arte; plangintza hori estrategikoa da, eta elkarri lotuta dago, eta askotariko ingurumen-bektoreetan eta haien erronka espezifikoetan ardaztuta dago.

Plan eta estrategia horien guztien eta Euskadiko Itun Berdearen beraren garapena aurreko IEP ezartzeko azken etapa da; hau da, **EAEko 2020ko Ingurumeneko Esparru Programa** (IV. IEP). IV. IEP 2014ko abenduan onartu zen, eta 6 helburu estrategiko, lehen-tasuneko 75 jardun eta zeharkako funtsezko 6 proiektu biltzen zituen.

Indarraldia amaitutakoan, IV. IEP ebaluatzeak agerian utzi zuen haren garrantzi estrategikoa Euskadin ingurumeneko gai aipagarrietan eta ingurumen-bektoreen gobernantzarekin erlacionatutako beste elementu batzuetan modu koordinatuan aurrera egitea lortzeko, baita ingurumenaren babesa enplegua eta oparotasuna sortzen duen garapen ekonomikoarekin bateragarria ez ezik horretarako beharrezkoa ere badela are gehiago aitortzeko prozesuan ere. Horrenbestez, IV. IEPren bidearen amaieran, argi eta garbi geratu da hohera egin duela Euskadiko ingurumenaren egoerak: hazkunde ekonomikoa eta ingurumen-adierazle nagusiak funtsean banantzea lortu da, baina oraindik badago zer hobetu, eta alderdi horiei are indar handiagoz eta ikuspegi berrietatik aurre egin behar zaie, hala nola klima-aldaketaren arriskuak eta ekosistemen egoera.

Testuinguru horretan, 2030eko IEP etapa berri baterako plataforma gisa proposatzen da. Etapa berri horretan, asmoa are handiagoa da, eta jasangarritasunaren kontzeptua behin betiko integratu behar da enpresen eta euskal gizartearen politika publiko, estrategia eta dinamika guztietan. Etapa hori, gainera, erabakigarria da, bai garrantziagatik, bai gizarte gisa gaindi behar dugun erronkaren premiagatik. Etapa horretan, jasangarritasunaren aldeko ekintza eraginkorrerako erantzukizunaren, elkarlanaren eta konpromisoaren printzipioek ingurumenaren alderdia gero eta indar handiagoz barnean hartu behar duen kontratu sozial baten oinarriak izan behar dute.

# 4

## EUSKADIREN KONPROMISOA 2030erako: IKUSPEGIA, LEHENTASUNEZKO ERRONKAK ETA PROIEKTU ERALDATZAILEAK

Aurretik deskribatutako aurrekariak oinarri sendo bihurtu dira Euskadik Gobernuko, korporazioetako eta gizarteko sektore eta geruza guztietan jasangarritasuna berma dezan. Aurreko aldietako Ingurumeneko Esparru Programek argi eta garbi finkatu dute norabidea, administrazio-erakundeek ahalmen eraldatzaileak sor ditzaten ingurumeneko gobernantza-eredu sofistikatu eta eraginkor batekin; Euskadiko Itun Berdearen bidez Europako Itun Berdearekin lerrokatzeak muga berriak zehazten ditu, eta haietan teknologia, industria, energia eta haien balio-kate nagusiak bat datoz ekonomia zirkular funtzionala sortzeko eta Euskadi estatu bidezkoagoa eta jasangarriagoa egiteko.

2030era begira, eta zimendu horietan oinarrituta, ikuspegi bat, lehentasunezko sei erronka eta hainbat proiektu eraldatzaile zehaztu dira:

- 2030erako izan nahi dugun Euskadiren irudia zehazten duen ikuspegi bat.
- Euskadi 2030 ikuspegia erdietsi ahal izateko ingurumeneko plangintza eta tresna guztiak zehaztean eta ezartzean ildo gisa kontuan hartu behar diren lehentasunezko sei erronka estrategiko.
- Palanka eragile izango diren eta ezarpen hori sustatu, indartu eta finkatuko duten proiektu eraldatzaile ugari.

### IKUSPEGIA

Euskadik jasangarritasunarekin duen konpromiso indartua epe luzerako estrategia gisa hartzen da, eta 2030erako ikuspegi nahikoa eraldatzailea du. Honela definitzen da Euskadi 2030 ingurumen-ikuspegia:

**2030ean, Euskadik (Europa) aurrerapen nabarmena lortu du jasangarritasunaren arloan, eta horrek are asmo handiagokoak eta eraldatzaileagoak diren helburuak lortzeko bidean jartzen du; horri esker, Europaren abangoardian kokatu da dagoeneko.**

Aurrerapen horrek esan nahi du 4 aktibo handi modu koordinatuan eta ordenatuan garatu ahal izango direla:

- Euskadiko Itun Berdea. Ingurumena lehentasun estrategiko gisa, eta ingurumenaren alderdia politika sektorialetan txertatzea. Eredu propio bat, garapen ekonomikoa bidezkoa eta jasangarria izan dadin, definitzean osatua eta behar beste aplikatua.
- Administrazio publiko konprometitua eta eragilea, dinamizatzailea eta eragile anitzeko proiektu eraldatzaileak diseinatzen eta ezartzen nagusi izateko ahalmena duena.
- Ekoizpen deskarbonizaturantz eta materialak behar bezala erabiltzera pasatu diren eta jasangarritasuna lehiakortasun-tresna estrategiko bihurtu duten euskal enpresak.
- Ingurumeneko gobernantza-eredu aurreratu eta ireki bat, konpromiso sendoak betetzea eta euskal gizarte osoa erronka garrantzitsuekin bat etortzea lortzeko.

## ERRONKA ESTRATEGIKOAK

Euskadi 2030 ikuspegi horretara iristeko, lehentasunezko sei erronka handi identifikatu dira gobernantza parte-hartzaileko, gardeneko eta kolaboratiboko, genero-ikuspegiko eta gaikuntzako, sorkuntzako eta ezagutzaren hedapen irekiko printzipio komunetan oinarrituta.

1. erronka: POLITIKEN ZEHARKAKOTASUNA. 2030erako ingurumeneko plan eta helburuen ikuspegi integrala, elkarreragina eta ingurumenekoak ez diren arloekiko lotura

2. erronka: OSASUNA ETA INGURUMENA. Osasunerako arrisku nabarmenak dakartzaten bektore berriak sartzea euskal ingurumen-politikan, ingurumen-osasunaren garrantzian sakonduz

3. erronka: JASANGARRITASUN LEHIAKORRA. Ekoizpen-sistema eraldatzea, berrikuntza jasangarritasunaren ikuspegitik birbideratzea eta ingurumen konpromiso handiko sektore ekonomiko lehiakorak eratzea.


4. erronka: KONTSUMO-EREDU KONTZIENTEA. Kontsumo-eredua jasangarritasun-irizpideetan oinarritzea, ekoizpen-ereduarekin duen erlazioa bermatuta.

5. erronka: FINANTZAKETA JASANGARRIA. Inbertsioak handitzea eta euskal finantza-sektorea birbideratzea, enpresa eta proiektu jasangarriei laguntzeko.

6. erronka: MONITORIZAZIOA ETA KUDEAKETA AURRERATUA. Adierazle solidoetan oinarritutako erabakiak hartzea, ingurumen-aldagaien bilakaera eta helburuen betetze-maila modu parte-hartzaile eta gardenean monitorizatuz.



**Euskadi 2030erako lehentasunezko erronkak**



## 1. ERRONKA POLITIKEN ZEHARKAKOTASUNA

**Europako Itun Berdeko jasangarritasunak alderdi berri bat eskaintzen dio Europako ekonomien lehiakortasunari, eta sektore ekonomiko guztietan du eragina, zeharka.** Horren harira, gatazkak koordinatzeko eta kudeatzeko mekanismo egokiak garatzea eskatzen du, jardun bertikalak eta horizontalak lerrokatuta egon daitezen eta ahalik eta gizarte-ongizate handiena ekar dezaten, baliabideak eraginkortasunez erabilia, erosketa publikoa eta berritzailea are erabakitasun handiagoz sustatzen duten politika eta tresnak hartuta, gizarte- eta ingurumen-arloetan enplegua sortuta eta hurbileko produktuak kontsumituta, besteak beste.

Ingurumen-politikatik jasangarritasunaren politikara aldatu behar dugu. Europak aitortzen du ingurumeneko erronken garrantziak eta mundu-mailako azken joeren inplikazioek gure gizarte eta ekonomietan funtsezko aldaketak egitea dakarte berekin, eta aldaketa horiek ondorio esanguratsuak dituzte gure bizitzeko moduan. Arazo iraunkorrak, irtenbide sistemikoak eta bestelako erantzunen beharra, klima eta biodibertsitatea kontuan hartu beharreko lehentasun gisa, deskarbonizazioarekin eta ekonomiaren desmaterializazioarekin batera. Diagnostiko eta analisisien arabera, antzeko ingurumen-ara-

zoak dituzte Europak eta Euskadik. **Modu globalean jarduten da. Ingurumen-erronkak proposatzeko eta ebazteko, ezinbestekoa da jasangarritasun-alderdi bati baino gehiagori heltzea, administrazio publikoa eraginkorra eta efizientea izatea, arau-esparruak gizarte- eta finantzaketa-politika berdeak sustatzea, eta enpresek eta gizarteak jasangarritasunaren kultura eta harekiko erantzukizuna bere egitea.**

Manten al daiteke gure oparotasun-sistema tokiko eta munduko muga ekologikoen barruan? Erronka berriak ez datoz bat 70eko eta 80ko hamarkadetan ezarritakoekin; orduan, ingurumen-arazoak espezifikoak ziren, eta tresna espezifikoekin konpon zitezkeen. Ingurumen-jasangarritasunaren egungo erronkak konplexuak eta sistemikoak direnez, erantzun politikoak eta estrategikoak bestelakoa izan behar du. Gaur egun, jasangarritasuna gizartean asmo handikoak eta koherenteak diren zenbait politika eta ekintzaren printzipio gidaria da. Aldaketa eraldatzailea egiteko, gobernuko arlo eta maila guztiek elkarlanean jardun behar dute, eta probetxu atera behar diete herritar, enpresa eta komunitateen asmo handiari, sormenari eta ahalmenari.



Zirkulartasunaren aldeko ekintza-ardatzak





## 2. ERRONKA OSASUNA ETA INGURUMENA

Garapen Jasangarrirako Agenda 2030eko 3. helburuak ezartzen duen bezala, **ingurumen osasungarria funtsezkoa da adin guztietako pertsona guztien bizitza osasuntsua bermatzeko eta ongizatea sustatzeko**. Hain zuzen ere, produktu kimikoak eta airearen, uraren eta lurzorua kutsadurak eragindako heriotza- eta gaixotasun-kopurua murriztu nahi da, eta **ingurumen-hobekuntzek osasun hobea dakartela** aitortu. Helburu hori lortzeko, ingurumeneko osasun publikoko programek ingurumen-faktoreei egotz dakizkikeen osasun-arazo posibleak ebaluatu behar dituzte (besteak beste, faktore fisikoak, kimikoak, biologikoak eta sozialak), baita pertsona guztiak babesteko politika publiko inklusiboak eta ekitatiboak garatu ere.

### INGURUMEN-ARRISKUKO FAKTOREEK GURE OSASUNEAN DITUZTEN ONDORIOAK

- Ingurumenaren Europako Agentziaren seinaleei buruzko 2020ko txostenak dioenez (“European zero kutsadura lortzearen alde”), “European, ingurumen-arriskuko faktoreek oraindik ere 1,4 milioi heriotza eragiten dituzte urtean, eta heriotza horiek, hein handi batean, saihesteko modukoak dira. Heriotzen heren bat baino gehiago kutsadurari egotz dakizkiok; hots, gure osasunerako ingurumen-arriskuko faktorerik garrantzitsuena. Kutsadurak eragindako kaltearen beste zati handi bat substantzia kimiko arriskutsuei zor zaie.”

Azken urteetan, Euskadik aurrerapen handiak egin ditu ingurumenaren kalitatea hobetzen. Europako politikak euskal lurraldera ekartzeari esker, emaitza


onuragarriak lortu dira gure ingurumenaren kalitatean. Bestalde, ezinbestekoa da kontuan hartzea **ingurumen-baldintzatzaileen eta osasunaren artean dagoen harremana**; ikuspegi horrek garrantzi handiagoa bereganatu du azken hamarkadan, Euskadiko osasun-politikaren barruan. Osasun-arriskuak prebenitzeko eta monitorizatzeko egindako lan horri esker, are gehiago kontrolatu dira substantzia kutsatzaileen isuriekin, uraren kalitatearekin, produktu kimikoekin eta bestelakoekin lotutako arriskuak.

Horregatik guztiagatik, osasunerako zenbait ingurumen-baldintzatzailei dagokienez, Euskadiko egoera ona da. Hala ere, baliteke ingurumen-baldintzatzaile batzuekiko **esposizio handiagoari** lotutako arrisku potentzial batzuk egotea; esaterako, airearen kutsadura, zarata-maila handiak, agertzen ari diren kutsadurak edo tenperatura altua denean sortzen den bero-uhartearen efektua. Faktore horien ondorioz, gero eta gaixotasun ez-kutsakor gehiago eta gero eta buruko osasun-arazo gehiago daude.

Hala ere, oraindik badago zer hobetu. Nahiz eta osasunaren eta ingurumenaren arteko erlazio kontzeptuala argia izan, erlazio horren irismena jasangarritasunaren kulturaren parte gisa integratu behar da oraindik, eta horretarako landu beharreko elementuek lehentasuna izan behar dute. Teknologia berrien laguntza ezinbestekoa da interrelazio horiek aztertzeko (adibidez, datu masiboak laguntza estatistikoko gisa erabiltzea), gure ezagutzan sakonduko baitugu eta diziplina anitzeko ikuspegia lortuko.

Horrenbestez, garrantzitsua da ikerketa horiek modu garden eta lagunkoian ezagutaraztea, ahalik eta independentzia eta zehaztasun zientifiko handienaz, eta osasun publikoko programek ingurumenarekiko arduratsua den osasun-sektorea eta komunitate osasuntsu eta erresilienteak sustatzea, ahal den neurrian aurkikuntzak eta ondorioak ekintza-plan operatibo eta erakundeartekoetan jasota.

## AIREAREN KALITATEA




## KLIMA-ALDAKETA




## KUTSADURA AKUSTIKOA



## SUBSTANTZIA KIMIKOAK



## URAREN KALITATEA



- **Airearen kalitatea:** Urtero, 400.000 pertsona hiltzen dira behar baino lehen European airearen kalitate txarragatik; heriotza horietatik 3.700 asmagatik dira, eta saihesteko modukoak dira; airearen kutsadurari lotutako heriotzak kardiopatia iskemikoak, istripu zerebrobaskularrak, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoak, minbiziek eta arnasbideetako infekzioek eragiten dituzte.
- **Klima-aldaketa:** Urtero, 29.006 pertsona hiltzen dira European bero-boladen ondorioz; temperatura baxuek koagulazio-arazoak eragin ditzakete, eta, besteak beste, horregatik ugaritzen dira bihotzekoak eta istripu zerebrobaskularrak hotz-boladen ondoren; klima-aldaketak klima beroagoetan edo tropikaletan soilik

izaten ziren gaixotasunak zabaltzea dakar, eta espezie inbaditzaileek sortutako gaixotasunak zabaltzeko bektoreetan eragina du.

- **Hots-kutsadura:** balioek urtero European zaratari lotutako eragina jasaten duten pertsonen gutxi gora-beherako kopurua adierazten dute.
- **Substantzia kimikoak:** OMEk dio urtean gertatzen diren heriotzen % 2,7 gutxi gorabehera substantzia kimikoen esposizioari egotz dakizkiokeela.
- **Uraren kalitatea:** beherakoen eta beste gaixotasun kutsakorren kausa nagusia ura da, eta uraren kalitate txarrak legionelosi-kasuak ere eragin ditzake.

### EBn ingurumen-arriskuen eraginez hilkortasun eta heriotza-tasa handiagoa duten eta saihesteko modukoak diren gaixotasunak

(Iturria: geuk egina, hauetan oinarritua: SEÑALES DE LA AEMA 2020: Hacia una contaminación cero en Europa (AEMA), 2019; Healthy environment, healthy lives: how the environment influences health and well-being in Europe (EEA), 2019; European Climate and Health Observatory)



### 3. ERRONKA JASANGARRITASUN LEHIAKORRA

Garapen Jasangarrirako Agenda 2030en, Parisko Hitzarmenaren eta Europako Itun Berdearen helburuek datozen 10 urteetan premiazko neurriak hartzera behartzen dute, maila guztietan. Hain zuzen ere, Europako Itun Berdearen helburu nagusia da Europar Batasunaren hazkunde ekonomikoko eta ongizateko eredia

jasangarriagoa eta lehiakorragoa bihurtzea. EBrako hazkunde-estrategia berri horrek gizartea ekitatiboagoa eta oparagoa izatea du helburu, eta ekonomia garbia eta zirkularra izatea, baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen, klimatikoki neutroa dena eta lehiakorragoa dena (epe motz, ertain eta luzera).



#### ESPARRUA



#### FUNTSEZKO FUNTZIOAK



#### ARRAZIONALTASUN POLITIKOA



#### POLITIKAREN IKUSPEGIAK (ADIBIDEAK)

Hazkunderako zientzia eta teknologia (1950eko hamarkadatik aurrera)

Berrikuntza linealaren eredia, I+Gk bultzatua

Merkatuko hutsegiteei aurre egitea (enpresek ez dute behar beste inbertitzen I+Gn, berrikuntzaren ondasun publikoaren izaera dela-eta)

I+Garen estatu-finantzaketa; enpresetako I+Grako diru-laguntzak edo pizgarri fiskalak

Lehiakortasuna hobetzeko berrikuntza-sistema nazionalak eta sektorialak (1980ko hamarkadatik)

Ibaian gorako eragileen arteko ezagutza-fluxuetan fokua (unibertsitateak, enpresak, agentziak)

Sistemaren akatsei erantzutea, adibidez, eragileen arteko loturak hobetuz, arazo instituzionalei helduz (legeetan, jabetza-eskubideetan, erregulazioetan)

Zentro zientifikoak eta zientzia-industria lankidetzak sustatzea; hezkuntza eta prestakuntza; kluster-politikak

Aldaketa eraldatzailea erronka handiei heltzeko (2010eko hamarkadatik aurrera)

Berrikuntza erradikala eta bide berriak sustatzea; berrikuntzaren norabideari forma ematea

Sistemaren eraldaketa sustatzea, eragile mantsoak edo jardutea gogoko ez dutenak barne hartuz

Misioak eta xedeak (GJH, helburu zientifikoak), parte-hartzaile berriei lagunduz, koalizio eraldatzaileak sortuz, ikasiz, esperimendatuz

#### Esparru estrategikoen bilakaera berrikuntza-politikan

(Iturria: Europako Batzordea 2020, Schoten eta Steinmuellerren oinarrituta)

Europako Itun Berdea Europar Batasuna abian jartzen ari den ekonomia berreraikitzekeko estrategiaren oinarrietako bat da. 11 jarduera-esparruren bidez, **ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren ereduaren iraultza** planteatzen du, **ekonomiaren ia sektore guztiak hartzen dituena**.

---

**Sistema ekonomiko jasangarri bateranzko trantsizio hori pixkanakakoa da, eta, aldi berean, atzeraezina, eta Europako industria-estrategia berriaren ezinbesteko osagaia da.**

---

Sistema ekonomiko jasangarri bateranzko trantsizio hori pixkanakakoa da, eta, aldi berean, atzeraezina, eta Europako industria-estrategia berriaren ezinbesteko osagaia da. Hori dela eta, Itun Berdeak Europan industria ekologikoagoa eta lehiakorragoa izatea lortu nahi du. Horretarako, funtsezko bi ekimen daude: Europa garbiagoa eta lehiakorragoa izateko ekonomia zirkularraren aldeko ekintza-plana, eta Europako industria-estrategia berria. Haren bidez, Europak planetari harengandik hartzen duena baino gehiago itzuliko dion hazkunde birsortzaileko eredu bateranzko trantsizioa bizkortu nahi du, baliabideen kontsumoa planetaren mugen barruan mantentzeko bidean aurrera egin, eta, horri lotuta, ingurumenean uzten duen aztarna murrizteko ahalegina egitea eta hurrengo hamarkadan erabiltzen duen material zirkularraren tasa bikoiztu.

Horretarako, enpresen sustapen- eta lehiakortasun-politika indartzen du, laguntza-tresnez baliatuta; esaterako, zuzenean ekonomikoki laguntzea, beharrezko finantzaketa eskaintzea, informazioa, aholkularitza

eta akonpainamendua ematea, merkatu-tresna berriak garatzea eta enpresen arteko elkarlana sustatzea.

Jasangarritasun lehiakorra sektore ekonomiko guztietan da nagusi, baina, bereziki, Europako Itun Berdearen helburuak erdiesten laguntzen duten jarduera ekonomikoetan (alegia, EBren taxonomiari buruzko ekintza eskuordetuetan eta eguneratze posibleetan ezarritakoak), baita gainerako jarduera ekonomikoetan ere, baldintza bakarrarekin: babesten diren proiektu eraldatzaileek ingurumen-helburuei “kalte esanguratsua ez eragitearen” printzipioa betetzen dutela ziurtatzea.

---

**Europak planetari harengandik hartzen duena baino gehiago itzuliko dion hazkunde birsortzaileko eredu bateranzko trantsizioa bizkortu nahi du.**

---

Halaber, Europako Itun Berdeak Euskadin hazten ari diren sektore eta balio-kateak sustatu nahi ditu; besteak beste, (1) nekazaritza jasangarria eta ekologikoa, eta tokiko produktuen diferentziazioa; (2) ekonomia urdina (itsaso eta ozeanoetako baliabideekin erlazioatutako produktu eta zerbitzuak); eta (3) basozaintzaren sektorea, zuraren industria garatzeko eta basoak eta baliabide naturalak kudeatzeko ahalmenarekin (bioekonomia).

**Eredu horrek ikerketa eta berrikuntza lehenetsiko ditu, leheneratze jasangarria eta inklusiboa bermatzeko ezinbesteko palanka gisa, baina baita ekonomien lehiakortasuna eta sistema sozioekonomikoen eraldaketa ere, ekoizpen-sektoreen erresilientzia sustatzeko.**



## 4. ERRONKA KONTSUMOEREDU KONTZIENTEA

Bai European, bai Euskadin, ingurumen-erronken azpian dagoen faktorerik garrantzitsuena da jarduera ekonomikoekin eta bizimoduekin lotura estua dutela,

bereziki elikadurari, etxebizitzari, energiari, mugikortasunari eta beste behar batzuei erantzuten dieten gizarte-sistemekin.



**Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko beharrezkoa da guztiok erosotasun batzuei uko egitea**



**Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko beharrezkoa da pertsona bakoitzak bere energia kontsumoa murriztea**



**Zientziari esker klima-aldaketaren aurka egin ahal izango da gure bizitzeko modua aldatu gabe**



### **Euskal gizarteak klima-aldaketari aurre egiteko bide posibleei dagokienez duen adostasun-maila**

(Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoaren Kabineteak klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruz egindako azterlana - 2021eko maiatza)

Emaitza gisa, baliabideen erabilera eta kutsadura balio-kateko sarrerekin, inbertsioekin, portaerekin eta bizimoduekin eta politika publikoekin lotuta daude zuzenean. Lotura eta atzeraelikadura horren ondorioz, aldaketa jakin batzuek nahi gabeko emaitzak eragin ditzakete. Adibidez, teknologiak dakartzan onurak agian txikiagoak dira «errebote-efektuen» ondorioz, efizientiako hobekuntzek kostuetan aurreztea eta, hala, kontsumoa handitzea ahalbidetzen dutenean. Bestalde, ekoizpen- eta kontsumo-sistemak zuzenean eta zeharka lotuta daudenez, arlo batean ingurumen-arazoei heltzeak nahi gabeko kalteak eragin ditzake beste batean (adibidez, deforestazioa eta elikagaien prezioen igoera bioerregaiak ekoiztearen ondorioz).

---

**Bestalde, ekoizpen- eta kontsumo-sistemak zuzenean eta zeharka lotuta daudenez, arlo batean ingurumen-arazoei heltzeak nahi gabeko kalteak eragin ditzake beste batean (adibidez, deforestazioa eta elikagaien prezioen igoera bioerregaiak ekoiztearen ondorioz).**

---

Euskal gizartea oso kontzientziatuta dago ingurumen-premiaren larritasunaz eta hari aurre egiteko kontsumo-ereduan aldaketak egiteko behar handiaz. Kontzientziazio hori abiapuntu ona da zalantzarik gabe gaur egungo gure bizimoduan eragin nabarmena izango duen prozesu bati heltzeko. Erronka da kontzientziazio-maila horretaz baliatzea, neurrien bidez herritar guztiak (haien egoera ekonomikoa edozein dela ere) zeregin aktiboa izan dezaten trantsizio ekologikoan, baina bizimodu espezifiko bat ezarri gabe eta diskriminazio sozialik egin gabe. Europako Itun Berdeak estrategia zehatz bat ezartzen du gure ohitura eta portaeretan beharrezko aldaketa sakon eta bizkor hori egiteko, gure ingurumen-aztarna murrizteko asmoz. Horretarako,

arlo batean baino gehiagotan jarduten du; besteak beste, “baserritik mahairako” estrategia elikagaiei dagokienez, “berrikuntza-bolada” eraikinei dagokienez, eta produktu jasangarrietarako diseinu ekologikoko erregelamenduaren proposamen berria beste edozein kontsumo-ondasunei dagokienez. Ekimen horiek balioa hobeto mantentzea sustatuko dute, produktu seguruago eta iraunkorragoei emango diete lehentasuna, eta ahalik eta gehien mantenduko dituzte materialak ziklo ekonomikoan.

---

**Ondasun eta zerbitzu berri horiek onarpen sozial handiena eta kontsumo-ikuspegi berriak izateko, kontsumitzaileek informazio fidagarriagoa eta kalitate handiagokoa behar dute.**

---

Ondasun eta zerbitzu berri horiek onarpen sozial handiena eta kontsumo-ikuspegi berriak izateko, kontsumitzaileek informazio fidagarriagoa eta kalitate handiagokoa behar dute ondasun eta zerbitzuen jasangarritasunarekin erlazonatutako alderdiei buruz; alabaina, horrek ez du esan nahi informazio gehiegi eman behar denik.


Horrez gain, **lehentasunezkoa da herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-lan handia egitea, gobernantza irekiko elementuetan oinarrituta. Herritarren kontzientziazioan ardaztutako eredu batetik erantzukizuneko eredu batera pasatzea.** Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-lan horretan, funtsezkoak dira gaztetxoek heztearekin lotutako jarduerak. Hezkuntza goiztiarrak umeei kontsumo arduratsuekin erlazonatutako printzipio eta balio berriak irakasten laguntzen du, eta jasangarritasunaren kultura sortzen du, belaunaldi-aukera arrakastatsuekin.



## 5. ERRONKA FINANTZAKETA JASANGARRIA

Europako Itun Berdeak dakarren eraldaketaren erronka ez da gauzatuko sektore bakoitzean inbertsio handia egin gabe. **Itun Berde horrek datozen 10 urteetan 1.000 bilioi euroraino mugiaraztea aurreikusten du**, hainbat eskema, mekanismo, tresna eta finantzaketa-ibilgailuren bidez. Gainera, EB, bere Berreskuratze eta Erresilientzia Estrategiaren barruan, zenbait mekanismo abian jartzen ari da, lehentasunezko zenbait arloren inguruan kapital publiko eta pribatuaren bolumen handia mobilizatzeko; besteak beste, 14 “industria-ekosistema”. Jasangarritasuneranzko beharrezko trantsizioak lortzeko, inbertsioetan ahalegina egin behar da, baina, horren truke, herritarrek onura handiak lortzen dituzte, bai naturari eta gizarteari saihestutako kalteengatik, bai sortuko diren aukera ekonomiko eta sozialengatik.

Finantzaketa jasangarria inbertsioak handitzean datza, eta euskal finantza-sektorea berriro orientatzean, enpresei eta proiektu jasangarriei babes egokia emateko. Horretarako, ekimen berritzaile eta jasangarrietara bideratzen diren funts publikoak optimizatu behar dira, udalari eta sektore ahulena babestuta. Halaber, euskal finantza-sektore pribatuak inbertsio jasangarrian parte hartu behar du, Europar Batasunaren ekintza-plana aplikatuta, errentagarritasun ekonomikoa ez ezik ingurumen-eragin positiboa duten inbertsioak finantzatzeko duen konpromisoa areagotzearen barruan; horrela, inbertsioak errentagarri bihurtuko dira, eta ingurumenaren aldetik eraginkorrak.



**Inbertsio jasangarriko aktiboen 2014-2020 aldiko proportzionaltasuna munduan, eskualdearen arabera**

(Iturria: Global Sustainable Investment Review 2020, Global Sustainable Investment Alliance)

Hein handi batean, inbertsioak jasangarritasun-proiektu berrietan finantzatzeko gaitasunaren arabera garatuko dira abantaila lehiakorrek Europako Itun Berdeak sortuko dituen aukeretatik abiatuta. Itunak berak finantzaketa-ekosistema eraginkorrek eta dinamikoak garatzea aurreikusten du, kapital-baliabideak proiektu jasangarrien inguruan mobilizatzea bideratuak, eta finantzaketa jasangarriko merkatuak sustatzeko neurriak barne hartzen ditu. Europak tradizioz zeukan lidergoa berreskuratu nahi du “inpaktuko inbertsioa” izeneko arloan, azken urteetan galdu egin baitu, errealtate horrek oso hazkunde handia izan duelako Japonian, Australian eta beste lurralde batzuetan (inbertsio horren asmoa da gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa eta kuantifikagarria sortzea, baita finantza-errendimendua ere).

---

**“inpaktuko inbertsioa” izeneko arloan, azken urteetan galdu egin baitu, errealtate horrek oso hazkunde handia izan duelako Japonian, Australian eta beste lurralde batzuetan (inbertsio horren asmoa da gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa eta kuantifikagarria sortzea, baita finantza-errendimendua ere).**

---

Berraktibazio jasangarria sustatzeko lehentasunezko bloke ekonomikoak (eta, ondorioz, inpaktuko finantzaketa horren behar handiena izango dutenak) industria, energia, eraikuntza, garraioa, lehen sektorea, ingurumena eta I+G+B dira. Finantza-sektore berritzaile eta jasangarriaren kontzeptu horrek ikuspegi zabala proiektatzen du. Ikuspegi horretan, gero eta joera handiagoa egongo da tradizionalak ez diren beste finantza-operadore batzuk erabiltzeko, baita finantzaketa-eskariaren eta -eskaintzaren arteko harreman-modu berriak ezartzeko ere; horren haritik, pisu handiagoa izango dute formula jakin batzuek, hala nola finantzaketa mistoak (publikoa eta pribatua), inbertsio kolektiboko sistemak eta crowdfunding-ak, eta finantza-merkatuen globalizazio handiagoak. Horretarako, bikaintasuneko oinarri tekniko eta estrategiko oso erakargarria duten proiektuak izan behar dira, eta Euskadiri behar dituen funtsak eman behar zaizkio.

EBk finantzatu dituen berreskuratze-panak ingurumen-irizpideen pean daude, “haien taxonomiaren harira, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko”. Horren asmoa da argi eta garbi mugatzea zer jotzen den inbertsio jasangarritzat eta zer ez, eta antzeko zerbait gertatuko da Europako Egitura Funtsen eta Europako Inbertsio Funtsen programa operatibo berriekin. Plan horiek guztiek erresilientzia ekonomikoa, soziala eta ekologikoa indartu behar dute, eta aldaketa sistemikoa eta iraunkorra sustatu, praktika eta teknologia jasangarri berriak ager daitezen, gizartean zabaldu eta parte har dezaten eta ezarritako sistemak berriro konfiguratu daitezten.

**Baina finantzaketa jasangarria ezin da erakunde-sustapenaren mailan geratu; funtsezkoa da hura finantza-tresnak, arau-esparruak eta merkatuak oso bizkor berritzeko eta politika berriak sortzeko joerarekin lerrokatzea. Tokiko ekintzaren eta nazioarteko laguntzaren arteko sinergiari esker, jasangarritasunerako finantzaketaren beste alderdi bati helduko dio Euskadik, eta, horrez gain, ingurumenaren kultura jasangarria sustatuko du.**






## 6. ERRONKA MONITORIZAZIOA ETA KUDEAKETA AURRERATUA

2002an Garapen Jasangariko Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) prestatu zenetik, eta ingurumena hobetzeko eta babesteko kontzientziazio-maila handia eta apustu garrantzitsua kontuan hartuta, Euskadik ingurumen-ongizatea osatzen duten askotariko arloen segimendu sistematikoa egin du, eta hori haren indar-

gune nagusietako bat bihurtu da; ondorioz, adierazle ugari sortu dira, tartean ingurumen-bektoreak, eta lurraldean ere zabaltzen dira, udal-mailaraino.

Ekintzen segimendua eta ebaluazioa egiteak eta lortutako inpaktua aztertzeak aukera ematen du hartutako



**Monitorizazio eta atzeraelikadura neurgarriko prozesua**

erabaki bakoitza aztertzeko, toki- eta mundu-mailako antzeko proiektu eta ekimenen emaitzak alderatzeko, proiektu pilotuak hasteko eta diseinu-aukera desberdinen eraginkortasun erlatiboa ebaluatzeko, eta ekimen oro ezartzeko lehenengo etapetan ez dabilena zuzentzeko.

Monitorizazioa funtsezkoa da erabakiak hartzeko eta konfiantza sortzeko, eta elementu kuantitatiboak eta kualitatiboak izan behar ditu. **Monitorizazio aurre-raturuko sistemak “datu irekien” eta “datu-federazioen” alderdietan sakondu behar du, Euskadik jasangarritasunaren arloan egiten duen lanari buruzko informazio-biltegi publiko handia bihurtzeko**, eta bere ebaluazio-alderdia indartu behar du, emaitza onenak izaten ari diren politikak eta programak zein diren identifikatzeko. Horretarako, ebaluazio honek politika eta programa horien inpaktuan, eraginkortasunetan eta efizientzian jartzen du arreta berariaz, besteak beste, eragile adituekin (esaterako, akademia) eta I+G+Bren ekosistemako beste eragile batzuekin elkarlanean, erabakiak hartzean euskal gizarteari funtsezkoa izateko aukera emango dioten emaitzak dituen ebaluazio zorrotzak egiteko asmoz.

Monitorizazio-sistemak partaidetzan oinarrituta egon behar du hein handi batean, eta, informazio kuantitatiboa ez ezik, eragile garrantzitsu guztien eta, bereziki, gizarte zibilaren iritzi eta itxaropenak barne hartu behar ditu, guztiek informazio didaktikoa, gardena eta irekia izan dezaten; horrela, interesa duen orok kontsultatu ahal izango du, errazago ulertuko du, eta harekin interakzioan aritzeko aukera ere izango du.

Positiboa bada ere, gaur egungo monitorizazioa ez da nahikoa, eta, batez ere gauzatutako politiken eraginkortasuna neurtzean, ezinbestekoa da jauzi kualitatibo

bat egitea ekimen eta jardunen bidez lortutako inpaktua zehaztasunez neurtu ahal izateko. Gainera, Europak ezarritako lan-ildoari jarraikiz, datuen berri emateko moduaren optimizazioa, Europako gainerako herrialdeekiko alderagarritasuna eta erabakiak modu informatuan hartzeko aukera ematen duen analisi holistikoa integratuko dituen monitorizazio-sistema batera iritsi behar da. **Ingurumen-bektoreek gai ugari ukitzen dituztenez, eta Euskadi oso heterogeneoa denez, haren irismenean sakontzen jarraitu behar da, eta elementu gehigarriak sartu behar dira**, 1. erronkan aipatutako gobernantza-ereduaren oinarritzko tresna bihurtuko den monitorizazio aurreratuko sistema bat osatu ahal izateko.

---

**Monitorizazio-sistemak partaidetzan oinarrituta egon behar du hein handi batean, eta, informazio kuantitatiboa ez ezik, eragile garrantzitsu guztien eta, bereziki, gizarte zibilaren iritzi eta itxaropenak barne hartu behar ditu, guztiek informazio didaktikoa, gardena eta irekia izan dezaten; horrela, interesa duen orok kontsultatu ahal izango du, errazago ulertuko du, eta harekin interakzioan aritzeko aukera ere izango du.**

---




## PROIEKTU ERALDATZAILEAK PROIEKTUEN DISEINU KONTZEPTUALA

Proiektu eraldatzaileek eragile izan nahi dute, eta gogo-malla eta lankidetzeta-modua (auzolana) partekatzen dituzte, hainbat eragile aktiboki elkarlanean jarrita.



Horrela, dokumentu honek zenbait proiektu eraldatzaile proposatzen ditu, hasieran definizio kontzeptuala eginda. Proiektu bakoitzaren oinarritzko fitxak alderdi hauei buruzko informazioa dakar: zer helburu daukan, zer erronka estrategikori laguntzen dion hura ezartzeak, zer gertaera nagusitan oinarritu behar duen ibilbide-orri xehatuak hura garatzeko, zer erakundek arduratu behar duen hartaz, eta zer beste eragilek parte hartzen duen aktiboki helburua erdiesteko.

Eragile nagusia parte-hartzaile guztiak bilduko dituen lantaldea sortu eta antolatzeaz, proiektuaren ezarpena sustatu eta koordinatzeaz, proiektuaren segimendu-dinamikak bideratzeaz eta haren aurrerapenaren eta emaitzen berri emateaz arduratuko den erakundea da. Bestalde, parte-hartzaileek zeregin aktiboa dute hura ezartzen, eta lantaldearen muina osatzen dute, proiektua garatzeko. Ezarpen-fasean, eragile berriak identifikatu eta elkartu ahal izango dira, behar edo aukera berriak hautemanaz gero. Ondorio horietarako, proiektu bakoitzaren deskribapen kontzeptualaren hasierako fitxak modu orokorrean identifikatzen ditu parte-hartzaileak.




### 2030eko jasangarritasun-ereduranzko logika estrategikoa eta sekuentziala

Hona hemen 2030eko IEPko proiektu eraldatzaileak:

1. PROIEKTUA  
**Produktu eta zerbitzu jasangarriak erosteko zentrala**  



---

2. PROIEKTUA  
**Lurraldearen kohesio jasangarria**  



---

3. PROIEKTUA  
**Osasunaren eta Ingurumenaren Behatokia**  


---

4. PROIEKTUA  
**Zirkulartasunak balio-kateetan**  


---

5. PROIEKTUA  
**ETEak jasangarritasunerantz**  



---

6. PROIEKTUA  
**Gizarte-berrikuntza jasangarritasunaren zerbitzura**  


---

7. PROIEKTUA  
**Herritarrak eta kontsumo jasangarria**  



---

8. PROIEKTUA  
**Finantza jasangarriak**  


## 1. PROIEKTUA **PRODUKTU ETA ZERBITZU JASANGARRIAK EROSTEKO ZENTRALA**

### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuaren bidez, euskal administrazioek erosketa berdea, berritzailea eta hurbilekoa egitea sustatu nahi da, erosketen zentral baten bidez. Horrela, beste urrats bat egingo da erosketa publiko berde eta berritzailearen ereduari, eta euskal administrazioen hornidura-kate osoa mugiaraziko eta berdatuko da, etorkizuneko ingurumen-erregulazioei aurrea hartuz.



### PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 1., 3. eta 4. erronkak

### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Zaintza estrategikoa egitea, Europako erosketa-zentralen beste esperientzia batzuekin alderatuta.
- Euskadiko herri-administrazioaren erosketa ahalmenaren diagnostikoa egitea, landu beharreko produktu edo zerbitzuen familia egokienak identifikatzeko. Kasuan kasuko erosketaren ingurumen-eragina identifikatzea.
- Udalekin, aldundiekin, Eusko Jaurlaritzaren sailekin eta gobernuko beste erakunde batzuekin solas egitea, produktu eta zerbitzuak erosi eta kontratatzeari dagokionez haien eskari, behar eta zailtasun nagusiak zein diren jakiteko.
- Hornitzaileekin solas egitea, proiektua nola ikusten duten jakiteko eta produktu eta zerbitzuak ebaluatzeko irizpideak batera ezartzeko.
- Interes handieneko produktuak baloratzea, haiek zentralizatzeko, zer aukera eta inpaktu-irizpide dauzkaten kontuan hartuta.
- Produktu berdeko eskaintza sustatzea eta ziurtatzea.
- Trakzio-ahalmena dagoen, tokiko hornitzaileak eta enpresa txikiak dituen eta produktu eta zerbitzuen jasangarritasun-irizpideak behar bezala zehaztuta dauzkan erosketa-sektore espezifiko batean pilotaje bat egitea. Beste administrazioekin pilotajeak partekatzea.
- Produktu- edo zerbitzu-tipologia bakoitzerako erosketa-metodologia edo -sistematika bat definitzea, eta haietako bakoitzerako adierazleak hautatzea.
- Erosketa-sistema digitalizatzea, eskuratze-aldiak, entrega-epeak eta, hala badagokio, merkaturatze-epeak egokituta.
- Eskain daitezkeen beste zerbitzu batzuk zehaztea, hala nola administrazioei aholkularitza espezializatua ematea baldintza-agiriak prestatzen laguntzeko, erosketa-taldeei prestakuntza teknikoa ematea eta tokiko produktu jasangarrien arrisku teknologikoko analisia egitea.
- Pilotajeari ebaluazio-sistema bat eta adierazle egoki eta koherenteak ematea, eragindako inpaktua kalkulatzeko eta kontuak behar bezala emateko. Erosketa publiko berdea ezartzeko prozesuaren segimendu eraginkorra ziurtatzea.
- Herritarrei zuzenduta egongo den eta hurbileko erosketaren eta erosketa berdearen garrantzia nabarmentzen duen sentsibilizazio-prozesu bat garatzea.

### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Ogasun Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Ekonomia eta Europako Funtsetako Sailburuordetza.
- EUDEL.
- Sektore publikoko zerbitzuak ematen dituzten enpresak.

## 2. PROIEKTUA **LURRALDEAREN KOHESIO JASANGARRIA**

### **PROIEKTUAREN HELBURUAK**

Proiektu honen bidez, arlo publikoko eta pribatuko erakundeek elkarlanean jarduteko sistema bat sortu nahi da, lurraldearen funtzioaniztasuna mantendu eta sustatzeko. Hauek ekarriko ditu proiektuak:

- Lurraldeko zerbitzu ekosistemikoak bermatzea.
- Gizarte- eta lurralde-garapen orekatua sustatzea.
- Euskadiko paisaia-aniztasuna zaintzea.
- Lurraldeak ongizatearen iturri gisa duen garrantzia nabarmentzea.
- Klima-aldaketari lotutako gero eta mehatxu ugariagoi aurre egitea, zaurgarritasuna murrizteko eta muturreko gertaerekiko erresilientzia handitzeko.
- Azpiegitura Berdeen Estrategiak prestatzen laguntzea eta nabarmen aurrera egitea.
- Erakundearteko koordinazio eraginkorra lortzea.



### **PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 1. eta 6. erronkak**

### **PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK**

- Lurralde historiko eta eskualde bakoitza zaintzean dauden egoerak identifikatzea, baita lurzorua erlacionatutako erregulazioak ere.
- Funtzio anitzeko eremuak identifikatzeko irizpideak ezartzea, lurraldeak askotariko zerbitzu sistemikoak emateko eta mantentzeko modua optimizatzeko duen ahalmena berma dezaten.
- Konpentsazio-sistema bat zer izango litzatekeen eta konpentsatu beharreko funtzioaniztasun-irizpideak zein izango liratekeen behar bezala definitzea, funts espezifikoen, formula fiskalen eta beste parametro tekniko batzuen bidez jardunbide egokiak konpentsatzeko formulak edo ereduak erabilia. Era guztietako formulen funtzionamenduari buruzko zaintza estrategikoa egitea.
- Azpiegitura berdeak sustatzeko lanak egiteko estrategiak eskaintzea eta lan horiei jarraipena ematea.
- Toki-erakundeekin eta herritarrekin partaidetza-prozesu bat garatzea, proiektu pilotu posibleak baloratzeko.
- Konpentsazioak dauden jardunbide egokiei eusten zaiela eta jardunbide txarrak ezabatzen direla bultzatu beharko du.
- Tailer praktikoaren bidez prestakuntza-prozesuak garatzea.

### **PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA**

- Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### **PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK**

- Ekonomia eta Europako Funtsetako Sailburuordetza.
- Udalsarea 2030 (udalak eta foru-aldundiak).
- Lurraldea babesten diharduten gizarte-erakundeak.
- Euskal unibertsitateak.

### 3. PROIEKTUA OSASUNAREN ETA INGURUMENAREN BEHATOKIA

#### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuak hobeto ezagutarazi nahi du Euskadiko osasunaren eta ingurumenaren arteko lotura, erabakiak hobeto hartzeko oinarri gisa; horretarako, eremu komun bat sortu nahi da, informazio eta ezagutza hori guztia zentralizatzeko eta hari koherentzia emateko. Proiektuak hauek egiteko aukera emango du:



- One Health ikuspegia eta klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia osasunaren zaintzan eta osasun-sisteman txertatu.
- Osasungarriak eta ingurumena errespetatzen duten ohiturak hartzeak eta ingurumenaren aldetik ongi zaindutako inguru bat izateak osasunean dituen onurak agerian jarri.
- Euskal herritarren osasuna hobetu.
- Epe ertainera Euskadiko osasun-sistemari nabarmen aurrezten lagundu, baita eragin ekonomiko eta sozial positiboak sortzen ere.
- Osasuneko profesionalak osasunaren eta ingurumenaren arloetan gaitu.
- Osasunaren eta ingurumenaren arloan punta-puntako prestakuntza-eskaintza kohesionatua zehaztu eta ezarri.

#### PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 2. eta 6. erronkak

#### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Egoeraren ebaluazio bat eta hasierako egoeraren diagnostiko bat egitea. Osasuna eta ingurumena monitorizatzeko eredu sistematizatuak dagoeneko badituzten beste herrialde edo eskualde batzuekin benchmarking-a egitea. Ingurunean garatzen ari diren proiektu pilotuekin harremanetan jartzea eta sinergiak sortzea.
- Osasunaren ingurumen-baldintzatzaileak definitzea (nola fisikoak hala kimikoak eta biologikoak), baita haiei lotutako adierazleak ere (hiri-ingurunearekiko esposizioaren adierazleak, adierazle psikosozialak, klima- eta eguraldi-aldaketako adierazleak, substantzia toxikoekiko esposizioaren adierazleak, jatorri biologikoko faktoreen adierazleak, etab.).
- Osasunean eragina duten adierazleetan oinarritutako metodologia bat garatzea eta ezartzea. One Health ikuspegitik askotariko ekosistemekin erlazioatutako adierazleak kontuan hartzea.
- Osasunaren eta ingurumenaren arteko lan-eremu egonkor bat sortzea, emaitzak aztertze eta ingurumenaren osasuneko prebentzio-neurriak diseinatzeko eta ezartzeko.
- Ikerketan inbertitzea, ezagutza sortzeko.
- Osasunaren eta ingurumenaren arloan ikasketa zientifiko eta teknikoetako, osasunaren zientzietako eta gizarte-zientzietako prestakuntza-zikloen eta unibertsitateko prestakuntzaren plan bat eraikitzea.

#### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Osasun Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

#### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Hezkuntza Sailburuordetza.
- Euskal unibertsitateak.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
- Udalsarea 2030 (udalak eta foru-aldundiak).

## 4. PROIEKTUA ZIRKULARTASUNAK BALIO-KATEETAN

### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuaren helburua da balio-kate bereko enpresak elkartzea, lehengaien erabilerari eta haien bizi-zikloari buruzko datuak bildu, partekatu eta aztertzekeo tresna digitalak erakusteko proiektuak garatzeko, ingurumen-aztarna murriztera bideratutako erabakiak errazago hartzeko. Proiektuak hauek egiteko aukera emango du:



- Beste balio-kate edo sektore batzuetan erabil daitekeen informazio- eta komunikazio-plataforma batean oinarritutako soluzio bat garatzea.
- Balio-kate bereko enpresen, eta enpresen eta zerbitzu-emaileen arteko elkarlana sustatzea.
- Materialen eta energiaren ekonomia zirkularrari, erabilerari eta bizi-zikloari buruzko ezagutza berriak eta berrikuntza sortzea.
- Produktibitate materiala handitzeko, soluzio berritzaileak hartzeko eta teknologia garatzeko ekintza-arlo espezifikoak identifikatzea.
- Baliabideak aurrez daitezen eta hondakinak murriz daitezen sustatzea.

### PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 3. erronka

#### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Proiektua sustatzen lagunduko duten, euskal ekonomiarako estrategikoak diren eta ekonomia zirkularrean eta BEG isuriaren eta ingurumen-aztarnaren murrizketan aurrera egiteko ahalmen handia duten balio-kateak eta enpresak identifikatzea. Adibidez, lehen sektorearekin (basoko baliabideak, elikadura, etab.), zenbait industria-sektoreekin (zementua, siderurgia, metala, eraikuntza, etab.) eta garraioaren sektorearekin erlazionatutako kateak.
- Sistema zirkularretarako zirkulartasun-indize bat garatzea, adierazle teknikoak (materiala), ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak eta erregulaziokoak dauzkana. Adierazle horiei esker, eredu jasangarri eta sistemikoetarantz igarotzeko gaitasuna neurtu ahal izango da, eta enpresa, balio-kate eta sektoreek prozesu produktibo eta logistiko zirkularragoetarantz igarotzen hasteko duten heldutasunari, prestasunari, erronkei eta ahalmenei buruzko diagnostikoak egin (antzeko zerbaitek egiten da enpresen heldutasuna eta 4.0 industria definitzen duten teknologiekiko hurbiltasuna neurtzeko).
- Balio-katean gora eta behera materialen trazabilitatea ziurtatzeko informazio garrantzitsua automatikoki eskuratzeko tresna digitalak definitzea eta garatzea, Europar Batasunaren pasaporte digital berriarekin lerrotatuta.
- Sortutako informazioaren konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatuko dituen lege- eta kontratu-ingurune bat definitzea.
- Arlo honetan inbertitzeko laguntza berriak garatzea.
- Enpresei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesuak egitea.
- Blockchain teknologiaren inguruan berritzea, balio-kateko eragileen arteko informazioa kudeatzeko, negozio-aukerak identifikatzeko, eskaria eta eskaintza doitzeko eta zerbitzu-eredu berriak garatzeko.
- Euskadin abian diren beste proiektu batzuekiko sinergiak eta aukerak identifikatzea, eta zeharkako beste arlo batzuetan dauden gaitasunak eta beharrak ebaluatzea, hala nola azpiegiturak, ezagutza, teknologiak, eta enpresa-ekimenetarako prestakuntza-, sustapen- eta laguntza-programak. Antzeko ezaugarriak dituzten Europako beste eskualde batzuetan dauden beste finantzaketa-programa batzuekin lerrotatzea.

#### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Industria Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

#### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea.
- Enpresa-klusterrak eta merkataritza-ganberak.



## 5. PROIEKTUA ETEAK JASANGARRITASUNERANTZ

### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuak euskal ETEak eraldatzen lagundu nahi du, jasangarriagoak izan daitezen. Proiektuak hauek egiteko aukera emango du:

- Euskal ETEei eraldaketa jasangarrirako ibilbide-orri bat diseinatuta eta ingurumen-aztarna kalkulatuta edukitzen lagundu.
- Ibilbide-orri hori aplikatuta, enpresen aztarna murriztu eta jasangarritasunaren bidez lehiakortasuna hobetu.
- ETEen arloan finantzaketa jasangarriko kontzeptuen integrazioa sustatu.
- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatu.



### PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 3. eta 5. erronkak

### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Euskal ETEek jasangarritasunaren arloan duten gaitasunaren diagnostikoa egitea, ezaugarriak eta espezifikotasunak aztertuta.
- ETEetan jasangarritasuna ebaluatzeko eta haren segimendua egiteko dauden ereduak bilaketa lehiakorra egitea.
- ETEek jasangarritasunari egiten dioten ekarpena (ingurumenekoa, soziala eta ekonomikoa) zenbatesteko aukera ematen duen eredu bat garatzea; eredu horretan, ingurumen-inpaktua ebaluatzeko eta estrategia zehatzak garatzeko metodologia bat egongo da, finantzaketa lortzeko balorazioarekin eta hornidura-kateko jasangarritasunaren ebaluazioarekin bateragarria.
- Eragile sustatzaileak hautatzea, euskal administrazioen babes ekonomiko eta komunikatiboarekin, eredu hori ezagutaraz dezaten eta, ondoren, enpresei jasangarritasun-agenda horiek ezartzen lagun diezaieten, haien artean ereduak zabal dezaten eta interesa duten eta akonpainamendua behar duten guztiak bidera ditzaten.
- Jasangarritasuneko ibilbide-orriak ezartzeko behar den babesa jasotzea, malgutasunez eta bi noranzkoetan, ETEak hobekuntza-prozesu horretan sar daitezten, administrazioak eta sektore pribatuak elkarlanean diharduten bitartean, metrika argien eta epe luzerako akordioen pean.
- Jarduera jasangarriagoetan aritzeko ahalmenak eta ezagutza-plana zein diren definitzea. Prozesu horretan behar diren ezagutza eta ahalmenak aplikatzea. Ezagutza- eta hezkuntza-azpiegiturak ematea. Pertsonak garapen jasangarrian gaitzea. Ahalmenak akreditatzea. Prozesu horrek taxonomia berdeari buruzko 2020/852 Erregelamendua aplikatzearen ondoriozko kontzeptuak eta etorkizuneko arrisku posibleak bilduko ditu.
- Jasangarritasunaren arloan eta pertsonak gaitzea ahalbidetzen duten metodologietan lehia zaintzeko sistemak eta ezagutzaren garapena indartzea.
- Kateko transferentzia, triangularen erpin bakoitzerako espezifikoa. Komunikazio-programa jasangarri bat garatzea.

### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA


- Industria Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Enpresa-talde eta -elkarte nagusiak.
- Basque Ecodesign Center-eko enpresa eragileak.

### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektu honek **jasangarritasunaren arloko gizarte-partaidetza aurreratuko** eredu bat sustatzen du, prozesu hauetatik abiatuta:



- **Informazio integraleko sistema** (sanitarioa, soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa), **irekia eta gardena**; datu masiboak esker, erabakiak bidezko eran eta eraginkortasunez har daitezke. Horrela, monitorizatu beharreko behar berriak definitu ahal izango dira, eta informazio fidagarria, eguneratua eta erraz maneiatzeko modukoa lortu teknologia berrien bidez.
- Ingurumen-jasangarritasunari buruzko **eztabaida sozialeko eredu aurreratuak** garatzea. Horri esker, beste urrats bat egin ahal izango da herri-partaidetzako eremuan, gizarteak entzuten zaiola sentituko baitu, eta herritarrei tresnak ere emango zaizkie datuak azter ditzaten eta interesatuta dauden pertsonen eta erakundeen arteko networking-a susta dezaten.
- **Gizarte-erantzukidetasuna ahalbidetzea**: haurrak eta gazteak funtsezkoak dira jasangarritasunaren etorkizuna ziurtatzeko. Bi lan-ildo proposatzen dira: (1) Bizitzako hasierako urteetatik jasangarritasunaren heztea, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleen behar eta errealitate espezifikoak kontuan hartuta. (2) Ikuspegi askotatik gazteak jasangarritasunaren arloari buruz kontzientziatzera bideratutako ekimenak integratzea.

**PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 4. eta 6. erronkak.**

### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

#### Informazio-sistema integrala, irekia eta gardena

- Gaur egun erabiltzen diren informazioa edo adierazleak identifikatzea, mapatzea eta sakon aztertzea.
- Lurra Behatzeko Europar Batasunaren Programak emandako datuen integrazioa aztertzea (Copernicus).
- *Ad hoc* adierazle sintetikoak diseinatu eta kalkulatzeko bideragarritasun-azterlana.
- *Open Data* Euskadi-ren barruan Ingurumeneko *Open Data* ataria zabaltzea. Atariaren inpaktua eta pertsona, enpresa eta eragileen balorazioa ebaluatzea.

#### Gizarte-partaidetzako eredu aurreratuak

- Euskadin ingurumen-jasangarritasunari buruz jada abian diren lantaldeak eta sareak mapatzea.
- *Open Government Partnership* Euskadi-ren (gobernu irekirako aliantza) 2018-2020 aldirako Ekintza Planarekin batera martxan jarritako herri-partaidetzako "I-lab" konpromisoa ezartzeko prozesuan ikasitakoak aztertzea.
- *Open Government Partnership* Euskadi-ren (gobernu irekirako aliantza) 2021-2024 aldirako Ekintza Planeko 3. konpromisoko (*Open* Eskola: herritarrak garatzea eta indartzea) eta 4. konpromisoko (Euskadin lege-, arau- eta erregelamendu-ekimen ezagunak egiteko proposamenak eta atxikipenak biltzea sustatzeko tresna) garapen-taldeekin elkarlanean eta modu koordinatuan aritzea.

## Gizarte-erantzukidetasuna (haurrak eta gazteak)

### Haurrak

- Hezkuntzan eta hezkuntza ez-formalean kontsumo jasangarriaren arloan orain arte egin dena aztertzea, baita beste lurralde batzuetako jardunbide egokiak ere.
- Lehen eta bigarren hezkuntzarako nahietan oinarritutako curriculum-eredu bat definitzea kontsumo jasangarriaren ikuspegitik.
- Elikaduraren arloan proiektu pilotu bat diseinatzea.
- Proiektuari laguntzeko sare bat eraikitzea, curriculum-a aldatzeko aplikatzeko ezagutza eta tresnak eskainiko dituena. Tartean diren ikastetxe, familia, erakunde eta eragileetan proiektua sozializatzea.

### Gazteak

- ANTIRRUMORES AMBIENTAL: klima-aldaketaren eta garapen jasangarriaren inguruko mito faltsuei aurre egitea, eguneroko jardunbideek eta kontsumo-ohiturek gure ingurunean duten eragin negatiboari eta positiboari buruzko informazio objektiboa eta egiazkoa emanda.
- ERRONKA GARBIA: ekimen honen bidez, ingurumen-neurriak integratu nahi dira gazteei zuzendutako ekintzetan, ingurumenaren gaineko inpaktu negatiboak minimizatzen. Gazteentzako azpiegiturretara eta eremuetara ere zabaltzea proposatzen da, arreta haien zabalkunde jarrita.
- RECONOCIMIENTOS DE JÓVENES: Administrazioak gazteen arloan diharduten eta etorkizun-idea bat duten pertsona, erakunde edo enpresa txikiei laguntzen die, jasangarritasunean aurrera egiteko. Unibertsitateetan, haztegietan, lantaldeetan eta abarretan gazteen proiektu jasangarrien eklosioa ahalbidetzea.
- CIENCIA JOVEN: gazteek jasangarritasunarekin erlazionatutako jarduera zientifikoetan eta unibertsitatearekin elkarlanean eta koordinatuta egiten dute lan, boluntario gis.

### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Lehendakaritza. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza
- Osasun Sailburuordetza
- EGK-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Hezkuntza Sailburuordetza Euskal unibertsitateak Lanbide-heziketako zentroak.
- Hezkuntza ez-formaleko eragileak.
- Ikasleen gurasoen elkarten federazioak
- Ararteko.

### PROIEKTUAREN HELBURUAK



Proiektu honen helburua da euskal herritarrak kontsumitzaile gisa ahalduntzea, erosten dituen produktu eta zerbitzuak aldatzeko, modu koordinatuan ekoizpen- eta kontsumo-eredu jasangarriago bat erdieste aldera. Proiektuak hauek egiteko aukera emango du:

- Kontsumo-arlo guztiei heltzea, eta inpaktu handiena duten eta lehenbailehen eraldatu behar direnak lehenestea.
- Jasangarritasun-estandar bat ezartzea, Europako politikekin lerrokatua, gardentasunean eta produktu eta zerbitzuen bizi-zikloari buruzko informazio osoan oinarritua eta ebaluatzeko tresna konparatibo gisa balio izango duena.
- Estandar berri hori bai eskaintzan, bai eskarian aplika dadin sustatzea, euskal herritarrek zerbitzuak erosteko eta kontratatzeke aukeretan erabil dezaten.
- Herritarrak merkatua eraldatzeko duten gaitasunaz kontzientziatzea, erosteko eta kontratatzeke aukeren ahalmenaren bidez, lor daitezkeen hobekuntza orokorrak identifikatuta.
- Elikagaiak xahutzearen aurkako euskal estrategiarekin eta Euskadi 2030 Erosketa eta Kontratazio Berdeko Programarekin duten osagarritasunaz baliatzea.

### PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK: 4. erronka.

### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Tokiko eskaintzako eragileek, banaketa-sektoreak, kontsumitzaileen elkarteek eta administrazioak osatutako lan-mahai bat ezartzea, Euskadin kontsumo jasangarriarekin erlazionatutako lehentasunak eta sustapena batera diseinatzeke.
- Gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduak eredu jasangarriago baterantz eraldatzeko beharrezko tresnak batera diseinatzea, produktu eta zerbitzuen jasangarritasunari buruzko informazio- eta gardentasun-estandar bat diseinatzea barne, erosketa-prozesuetan ebaluazio konparatiboa erraz egiteke.
- Ekoizle, banatzaile eta establezimendu komertzialetarako pizgarriak eta akonpainamendu-planak sortzea, garatutako tresna berriak ezar ditzaten, erosketa-aukeretan euskal herritarrek eskura izan ditzaten.
- Euskal herritarrak sentsibilizatzeko eta trebatzeko kanpainak garatzea, garatutako tresna berriak ezagutu eta erabil ditzaten.
- Ekoizleekin eta haien balio-kateekin batera, produktu eta zerbitzuen jasangarritasunean duten posizionamendua hobez dezaketen jardunak identifikatzea, herritarrek haien produktuak are gehiago onartzea ekarriko duen etengabeko hobekuntzako prozesu batean.
- Produktu eta zerbitzuen katalogoak ingurumen-portaerako maila onenekin garatzea, beste hobekuntza batzuk egiteko aintzatespen eta pizgarri gisa.

### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza.
- Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Kontsumitzaileen elkarteak.
- Enpresa-talde eta -elkarte nagusiak.
- Enpresa-klusterrak eta merkataritza-ganberak.

### PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuak gure ekonomia eraldatu nahi du, jasangarriagoa izan dadin; horretarako, euskal finantza-sistema sartzen du prozesuan. Halaber, 2020/852 Erregelamendua (EB) bizkor egokitzea sustatuko du (2020/852 Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparrua ezartzeari buruzkoa). Proiektuak hauek egiteko aukera emango du:



- Euskadik Erregelamenduan ageri diren betebeharrak betearaztea eta oraindik garatu ez direnei aurrea hartzea.
- Euskadin ezagutza eta talde estrategikoak sortzea, Erregelamendua zabaltzeko.
- Erregelamendua eskaintzen dituen arriskuak eta aukerak ebaluatzea, eta egokitzeko eraldaketa-mapak egitea.

**PROIEKTUAK LORTZEN DITUEN ERRONKAK:** . eta 5. erronkak.

### PROIEKTUAREN GERTAERA EDO JARDUERA ESTRATEGIKOAK

- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuek taxonomiarekin duten lerrokatze-maila neurtzea (2020/852 ERREGELAMENDUA (EB), EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, eta haren aldaketak).
- Euskadiren abiapuntuko egoera diagnostikatzea eta finantza jasangarrien ezagutza-maila prestatzea, batez ere Erregelamenduaren ingurumen-ikuspegitik. Trantsizio-mapak egitea, sektore ekonomikoen arabera.
- Europako beste eskualde batzuekin trukatzeko formatuak zabaltzea, ezagutza eta esperientziak partekatzeko.
- Eragileen artean prestakuntza eskaintzea, batez ere enpresen sarea bultzatuta, ekoizpen-ereduaren eraldaketa sustatzeko.
- Enpresa kotizatuekin lan-mahai bat sortzea, gero ETEetara zabal daitekeen ezagutza sortzeko.

### PROIEKTUAREN ERAGILE NAGUSIA

- Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

- Enpresa-talde eta enpresa eragile nagusiak, bereziki kotizatuak.
- Finantza entitateak.

2030eko IEP onartu eta berehala, proiektu bakoitzaren eragile koordinatzaileak proiektua ezartzeko lantaldean parte hartuko duten eragileen zerrenda osatu eta zehaztuko du. Halaber, tartean diren alderdi guztiekin harremanetan jarriko da, eta lantalde bat eratuko du formalki.

Ondoren, 2030eko IEP formalki onartu eta sei hilabeteko epean, lantalde bakoitzak proiektu eraldatzailea ezartzearekin lotutako ibilbide-orri bat zehaztu beharko du, ezarpen-prozesuaren egutegia eta gertakari nagusiak, beharrezko baliabideen estimazioa eta segimendu-eta ebaluazio-adierazleak adierazita.

---

**Ondoren, 2030eko IEP formalki onartu eta sei hilabeteko epean, lantalde bakoitzak proiektu eraldatzailea ezartzearekin lotutako ibilbide-orri bat zehaztu beharko du, ezarpen-prozesuaren egutegia eta gertakari nagusiak.**

---

Proiektu bakoitza banaka planifikatu eta gauzatuko da, eta, horretarako, kudeaketa-jardunbideak hartuko dira kontuan, eta baliabide ekonomikoen erabilera, behar den giza talentua (genero-berdintasunean arreta jarrita) eta kasuan kasuko aurrekontuak optimizatuko dira. Funtsezkoa izango da proiektu bakoitzaren irismena finkatzea: arriskuak eta arintze-neurriak aztertuko dira, haren ezarpen eraginkorra ez oztopatzeko.

Aldi berean proiektu bat baino gehiago edukitzearen erronkari esker, sinergiak sortu eta optimizatuko dira. Proiektu batzuen gertaera garrantzitsuak gauzatzean, ezagutza eta tresnak sortuko dira, eta gauzak ikasiko dira, eta horrek guztiak beste batzuen ondorengo faseak elikatuko ditu. Horretarako, 2030eko IEPk komunikazio-kanal irekiak sortuko ditu eragile koordinatzaileen artean, 2030eko IEPren Idazkaritza Teknikoaren bidez; horrela, hobeto ikusi ahal izango da zorro osoa eta interakzio eta lankidetzaren posiblea.

---

**Proiektu bakoitza banaka planifikatu eta gauzatuko da, eta, horretarako, kudeaketa-jardunbideak hartuko dira kontuan, eta baliabide ekonomikoen erabilera, behar den giza talentua (genero-berdintasunean arreta jarrita) eta kasuan kasuko aurrekontuak optimizatuko dira.**

---

Proiektu eraldatzaileak bizirik daudenez eta etengabe aldatzen ari direnez, atea zabalik uzten da, aurreikusitako gobernantza-dinamiketarik abiatuta, 2030era bitartean proposamen berriak egiteko eta beste proiektu batzuetan txertatzeko.

# 5

## EUSKADIKO 2030eko INGURUMENENKO ESPARRU PROGRAMAREN GOBERNANTZA-EREDUA

10/2021 Legeak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, 10. artikuluan dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak 2030eko IEP prestatu behar duela eta Gobernu Kontseiluak onartu behar duela, Ingurumeneko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren<sup>1</sup>.

Hala ere, 2030eko IEP kudeatzeko eta ezartzeko, are eragile gehiagok parte hartuko dute, eta zeharkako gobernantza- eta partaidetza-sistema bat jarriko da abian. Honela antolatuta egongo da sistema hori:

**2030eko IEP kudeatzeko Idazkaritza Teknikoa**, lhobe burua duela. Idazkaritza tekniko hori arduratuko da 2030eko IEPko edukien analisiarekin, diagnostikoarekin, segimenduari eta ebaluazioarekin erlazionatutako koordinazio-lan guztietan laguntzeaz. Gainera, Idazkaritza Teknikoak esparru-jarraibideak emango ditu, proiektu eraldatzaileetako lantaldeei modu estandarrean eta koherentean jarduteko oinarri bat bermatzeko.

2030eko IEPko **proiektu eraldatzaileetako bakoitza ezartzeko lantaldeak**. Dokumentu honen aurreko atalean esaten den bezala, lantalde bakoitzak eragile koordinatzaile bat eta eragile parte-hartzaileen kopuru aldakor bat izango dituzte, eta guztiek elkar-lanean jardungo dute proiektua ezartzeko. 2030eko IEP formalki onartu eta sei hilabeteko epean, lantalde

guztiek eratuta egon behar dute, eta ibilbide-orri xehatu bat izan behar dute beren proiektu eraldatzailearen ezarpenari lotuta, gertaera garrantzitsuak eta segimendu-adierazleak adierazita, gauzatutako jardueren inpaktua eta hura ezartzeko beharrezko baliabideen estimazioa ebaluatzeko. 2030eko IEP ezarri bitartean proiektu eraldatzaileen beste proposamen batzuk ateratzen badira, proposamen horietarako ere lantaldeak eratu beharko dira.

**2030eko IEPekin lotutako Jasangarritasun Foroa**: programa hau prestatzeko partaidetza-dinamiketan aritu ziren eragileetako batzuek osatuko dute, eta aditu-ikuspegia emango dute ebaluazioaren ezarpenari laguntzeko. Foroa osoko formatuan bilduko da urtean behin, ebaluazio eta eguneratze estrategikoa egiteko; halaber, proiektu eraldatzaileak modu optimoan ezartzen lagun dezaketen nazioarteko joera emergenteak eta jardunbide egokiak identifikatzen laguntzeko.

**2030eko IEPri lotutako Herri Partaidetzako Foroa**. Jasangarritasunaren arloko gizarte-partaidetza aurreratu "Gizarte-berrikuntza" proiektu eraldatzailearen esparruan, 2030eko IEP ezartzeko aldiari, aldizkako dibulgazio- eta deliberamendu-prozesuak lehenetsiko dira, jasangarritasunaren arloan interes estrategikoa duten gai zehatzetan parte hartu ahal izateko.

<sup>1</sup> 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak, Ingurumeneko Aholku Batzordearen zereginak eta haren osaera arautzen du 11. eta 12. artikuluetan. 12. artikuluko bigarren atalak hau dio: "Araudiaren arabera zehaztuko dira Ingurumenerako Aholku Kontseiluaren osaera, kideak izendatzeko prozedura, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuz, eta antolatze eta funtzionatzeko oinarriko arauak".

Arauzko garapen hori izapidetzen ari da Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu baino lehen, eta, ondorioz, gaur egun Kontseiluak ezin ditu bere lanak egin. Hori dela eta, organo horrek ez du berrikusi Esparru Programa hau.

# 6

## 2030eko INGURUMENeko ESPARRU PROGRAMAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

2030eko Ingurumeneko Esparru Programa 7 urterako da, 2030era arte, eta lehenengo aldia 2026ra arte gauzatuko da. Une horretan, jasotako jardueren aurrerapen-mailaren bitarteko ebaluazioa egingo da, eta ordura arte ezarritako proiektuen ahalmen eraldatzailea neurtuko, proposatutako ibilbide-orrietan oinarrituta. Ebaluazio horretatik abiatuta, berriro definituko dira bigarren alditik hasi eta amaierara arte gauzatu beharreko jarduerak.

Aurreikusitako denbora-tartea eta gaur egungo egoera ekonomiko ezegonkorra kontuan hartuta (aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomiko txikia izango da, eta inflazioa, berriz, handia), 2023rako aurrekontuak ziurgabetasun-egoeran kokatzen dira, eta, ondorioz, komeni da gastuei eustea 2030eko IEP gauzatzeko lehenengo ekitaldian. Edonola ere, eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumenaren arloko ekintza gidatuko duen plan gisa, 2030eko IEPk Jaurlaritzaren aurrekontuetako ikuspegi eta konpromiso ekonomikoekin lerrokatu behar du, eta, helburuak babesteko, garatu beharreko jarduerak konpromiso eta ekimenetan kokatu.

**Aurreikusitako denbora-tartea eta gaur egungo egoera ekonomiko ezegonkorra kontuan hartuta (aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomiko txikia izango da, eta inflazioa, berriz, handia).**

Programak erronka ugari dituenez eta Euskadiko Itun Berdea eta indarrean dauden ingurumen-plangintza sektorial guztiak eraginkortasunez ezartzeko katalizatzaile estrategiko gisa proposatzen denez, ingurumen-plangintzako corpus honen aurrekontu-beharrak nagusiki proiektu eraldatzaileetan zehaztuko dira, haien bidez heldu nahi baitzaie identifikatutako erronkei. Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza arduratzen denez indarrean dauden ingurumen-plan eta -estrategia sektorialak gauzatzeaz, eta 2030eko IEP denez ingurumen-ekintza zeharkako ikuspegitik gobernu-ekintza osoan integratzen duen plangintza-tresna, haren aurrekontua Sailburuordetzak onartutako aurrekontuetan sartuta dagoela ulertzen da. Horrenbestez, erreferentzia-esparrua Ekonomia eta Ogasun Sailak prestatutako 2023ko Aurrekontuetan<sup>2</sup> jasotakoa da.

Bestalde, 2030eko IEPko proiektu eraldatzaileak ezartzea herrialde-proiektu bat denez eta horretarako ezinbestekoa denez gobernu-ekintza osoa elkarlanean aritzea eta koordinatzea, arrazoizkoa dirudi pentsatzea Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuetan eta proiektu eraldatzailearen batean buru edo parte-hartzaile gisa diharduten beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan ere aurrekontu-baliabideak egongo direla.

Lan-aurreikuspenaren arabera, 2030eko IEP onartu eta sei hilabeteko epean ibilbide-orriak prestatu behar dira. Orri horietan, proiektu bakoitzaren irismena eta jardun-esparrua zehaztuko ditu lantalde bakoitzak, eta proiektua ezartzeko beharrezko baliabide ekonomikoak estimatuko ditu. Hori dela eta, orain, 2023rako beharko diren baliabide ekonomikoak soilik estimatzen dira; lehen esan dugun bezala, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzarako onartutako aurrekontuetan sartuta daude, eta ez da aparteko beste partidarik behar.

<sup>2</sup> <https://www.euskadi.eus/aurrekontuakeae/web01-a3ogappt/eu/>



---

**Lan-aurreikuspenaren arabera, 2030eko IEP onartu eta sei hilabeteko epean ibilbide-orriak prestatu behar dira. Orri horietan, proiektu bakoitzaren irismena eta jardun-esparrua zehaztuko ditu lantalde bakoitzak.**

---

Hain zuzen ere, Programaren irismenarekin lotutako 2023rako aurrekontua 150.000 eurokoa baino ez da 8 proiektu eraldatzaile bakoitzerako aurreikusitako ibilbide-orrien definizioa sustatuko duen idazkaritza teknikorako; aurreikuspenen arabera, proiektu horiek aurten gauzatuko dira, eta aurrekontu hori Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzarako onartutako aurrekontuaren barruan dago jada.

IEPren aldi osorako gutxi gorabeherako aurrekontua 1.400.000 eurokoa da, idazkaritza teknikoak proiektuak bi alditan sustatzeko (hots, 2023-2026 eta 2027-2030). Ibilbide-orrietan eta haiek gauzatu ahala zehazten diren proiektu eraldatzaileen aurrekontu operatiboa proiektu bakoitzaren buru den sailburuordetzak onartutako aurrekontuetan jasota egongo da.

Hemen jasotako aurrekontu-aurreikuspenak eta ibilbide-orrietan zehaztutakoak alde batera utzita, Ingurumeneko Esparru Programako ekitaldietako bakoitzeko jardun-maila Eusko Legebiltzarrak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak onartzeko unean zehazten dituen zenbatekoek, mugek eta aginduek baldintzatuko dute, baita proiektu eraldatzaileak ezartzeko erabili nahi diren tresnen izapidetze formalak ere.

---

**Ibilbide-orrietan eta haiek gauzatu ahala zehazten diren proiektu eraldatzaileen aurrekontu operatiboa proiektu bakoitzaren buru den sailburuordetzak onartutako aurrekontuetan jasota egongo da.**

---

# 7

## EUSKADIKO 2030eko INGURUMENEN ESPARRU PROGRAMAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

Legegintzako eta ingurumen-plangintzako tresnak ezartzen duen ibilbide luzea kontuan hartuta, bidezkoa da esatea euskal ingurumen-politikak dagoeneko badituela segimendu- eta neurketa-tresna finkatuak, eta tresna horiek Euskadiko ingurumen-egoeraren eta abian diren ingurumen-politiken inpaktuaren irudi argi eta osoa ematen digute une oro. Aldizkako segimendua eta ebaluazioa egiteko egitura sendo eta finkatu horrek hauek ditu barnean, besteak beste:

- Aldian-aldean eguneratzen diren estatistika ofizialei lotutako ingurumen-informazioari adierazleak (esaterako, **Euskal Estatistika Institutuaren –Eustat– lurraldeari eta ingurumenari buruzko estatistikak** eta **Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren ingurumenari buruzko estatistikak**).
- **Ingurumenari buruzko txostenak**, gaur egun Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 13. artikulua arautzen dituenak (urteko txosten koiunturalak eta lau urtean behingo txosten osoak).
- Ingurumen-bektorearen arabera **ingurumen-profil** monografikoak, ekobarometroak edo indize integratuen txostenak (esaterako, aztarna ekologikoa eta ingurumen-errendimenduen indizea).
- Indarrean dagoen plangintza sektorialarekin erlazionatutako adierazleak.
- Euskadiko **Agenda 2030en segimendu-txostenak**.

Proposatutako ingurumen-helburuetarantzko aurrerapena ingurumen-segimenduko dinamiketan zehaztuta, ezarrita eta integratuta dago.

Horrekin batera, 2030eko IEPren segimendua eta ebaluazioa egitean, 2030eko IEPn jasotako proiektu eraldatzaileen aurrerapen-analisia ere hartuko da barnean.

Azkenik, adierazleen bidezko segimenduaz gain, tarteko ebaluazioa egingo da, eta amaieran 2030eko IEP ebaluatuko da; bi ekintza horiek kanpotik egingo dira. 2030eko IEP ebaluatzeko txostenak 2026 eta 2030 bitartean jarriko dira jendearentzat eskuragarri. Tarteko txostena abian jarritako dinamika optimizatze edo 2030eko IEPren aplikazio integrala hobetzeko proposamen berriak aztertze oinarri gisa erabiliko da. Bestalde, 2030eko IEPren amaierako ebaluazioa abiapuntua izango da esparru-plangintza estrategikoaren ziklo berria zehazteko orduan: Ingurumeneko IV. Esparru Programa.

2030eko IEPren segimendua eta ebaluazioa egiteko, EIR metodologia erabiliko da. “Ingurumen-ezarpenaren berrikuspena” izeneko tresna hori (ingelesez, EIR) Europako Batzordeak prestatu zuen, EBko ingurumen-politika eta -legerien helburuak programatutako jardueren bidez zer neurritan gauzatzen diren monitorizatze eta Europako Parlamentuak eta estatu kideek adostutako arau komunak aplikazioa gainbegiratzeko.

EIR metodologiak ingurumen-aplikazioaren arloko egoeraren irudi informatua eta sintetikoa eskaintzen du, beharrezko neurriak hartzeko lorpen eta erronkei buruzko modu egituratuan hitz egiteko aukera sortzen du, eztabaida politikoetarako eta EBko erakundeen arteko solasaldietarako oinarri egituratua ematen du, eta jardunbide egokiak eta arazo komunak identifikatzen eta partekatzen ditu.



---

# ERANSKINAK

---

## 1. ERANSKINA .....

Euskadiko 2020ko Ingurumenaren Egoera eta Aurreikuspenak. Estekaren bidez eskuragarri

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/euskadiko020ko-ingurumenaren-egoera-eta-aurreikuspenak-3>

---

## 2. ERANSKINA .....

Testuingurua: jasangarritasuna nazioarteko, Europako eta EAeko politiken erdigunean

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

---

## 3. ERANSKINA .....

2020ko Ingurumeneko IV. Esparru Programaren amaierako ebaluazioaren txostena

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

---

## 4. ERANSKINA .....

2030eko IEP prestatzeko partaidetza-prozesuaren txostena

<https://www.ihobe.eus/argitalpenak/2030erako-euskadiko-ingurumen-esparru-programa>

---

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**